

**MANUEL LARRAMENDIREN
HIRUGARREN MENDEURRENEAN**

MANUEL LARRAMENDIREN HIRUGARREN MENDEURRENEAN

Andoain, 1991.eko martxoa

Jon Unanue López

Sarrera. Kronika

Iaz, 1990eko azken hiruhilekoan, Manuel Larramendi andoaindar ospetsuaren jaiotzaren hirugarren mendeurrena ospatu genuen Euskal Herriko zenbait hiritan. Andoaingo "Garagorri" baserrian 1690eko abenduan jaioa, Aita Larramendi josulaguna 1766ko urtarrilaren 29an hil zen Loiolako Santutegian, 76 urteko bizitza luzea euskara bere hizkuntzari eta bere herriari bihozbetez eskaini ondoren. Bizitza luze horren oparotasunean, Manuel Larramendi, hitzez zein idatziz, euskararen eta euskal kultura, gizarte eta politikagintzaren ikerle, eragile eta biderakusle izan genuen, gizarte ororen baitara aldakuntza eta berrikuntza ugari ekarri zuen ilustrazioaren mendean. Eta aipatuak ez ezik, Larramendik dohain aparta azaldu zuen gai eta arazo jakin batzuren ildoan gerora gauzatuko ziren gertakizun eta egintzak hautematerakoan. Hautemaile zorrotza ez bakarrik hurbil-hurbiletik bizitu zituen gertakari eta aldakuntzen argitara, baita, ezpairik gabe bere gogoaz zurrunbilo ilunetara eraman bide zuten aldaketa berrien ondorioez hausnartzean.

* * *

Baina, esanak esan, Manuel Larramendiren gizatasuna eta obrak urte luzez onespén ilun baten itzaletan egon dira murgilduta. Batetik, jakin badakigu bera hil ondorengo urteetan oihartzun haundia izan zuela Larramendiren izenak, gorentasun haundia, hasierako uste batez, euskararen mesedetan idatzi eta bizi zela argitaratu zituen lanen eskerronez. Gaur, ordea, azken urteotan egindako ikerketek eta aurkitu eta plazaratutako haren obra ezezagun zenbaitek aipatu oihartzun horren benetako arrazoa eta neurria ezagutzeko aukera eman digute. Larramendik euskararen alorrean ondutako lanak nahiko eta oso gainditzat jo bagenitzake ere bereganatutako gorentasunaren zergatia ulertzeko, azalekoa zirudien, bestetik, obra horien gaineko oihartzuna hain herrikoia izateak, hain irismen eta onespén zabalekoa hizkuntza berari lotutako lan erraldoi bati zegokionez. Eta azalekoa diodanean ez dut inolaz ere hutsala izan zenik adierazi nahi, baizik eta Larramendik berak hainbatetan euskararekiko salatu zuen utzikeria eta axolagabekeria kontutan izanik, zaila gertatzen zela hizkuntzarekiko bere ihardunetik urrunduta bizi zen herriarengan hain onespén haundiko oihartzuna mami-

tzea. Oihartzun hori hizkuntzaren alorreko obrez bestelakotatik ere etorri behar zitzaion hein haundi batean. Bere garaikide eta ondorengo hurbilek horren mamia bere hortan ezagutu zuten, baina, denbora igaro ahala, Larramendik argitara emandako obrak ezagutzeko aukera baizik ez zen izan, eta bere eragina, nagusiki, XIX. mendearen hondarretan loratutako euskalari eta idazle belaualdiarengan ernatu zen. Loraldi hori, berriz, udaberri sasoi bat bezain iragankorra izan zen Larramendirenganako onespenerari zegokionez, zeren, jakina bait da urte gutxiren buruan gainbeherara eraman zutela josulagunaren lanari buruzko eritzia.

* * *

Horrenbestez, garbi utzi behar da —nere uste apalean— Larramendiren ihardun eta obren gaineko balioa eta neurria ez direla behar hainbateko zorroztasun eta ikerketez aztertuak izan mende honetan zenbait ikerlariren ekimenez eta plazaratuz joan diren obra eta idatzi berrien laguntzaz zegokion osotasunean —eta bizitu zituen zirkunstantzia abarren argitara— aukera berririk izan ez den unerarte.

* * *

Baina, zergatik izan du, ordea, Larramendik hain abegi iluna? Erantzun ugariko galdera da hori eta ez dagokidana niri bertatik orain argitzea. Manuel Larramendiz zenbait ikerlarik idatzitako hainbat liburu eta artikulutara jo beharko du irakurleak jakin eta ulertu ahal izateko zein inguruabar goibel eta kaltegarri bizitu zituen andoaindarrak eta bere obrak ¹, gerora aipatutako iluntasun horretara erortzeko. Agian, hiruzpalau aipatzearren, honakook ekar ditzakegu gogora:

— Manuel Larramendik idatzitako obra zenbaitek garaiko agintarien zentsura jaso zuten, eta, ondorioz, ilunpetara kondenatuta gelditu ziren. Aipatu obra horien artetik, batzuk argia ikusi dute gerora. Horrela, bada, gaur Larramendiren alderdi ez hain ezagun hainbaten berri izateko aukera dugu andoaindarra hil ondorengo mendean hasitako aurkikuntza prozesu horri esker. Aita Fitak *Corografía de Guipúzcoa* 1882.urtean argitaratuz hasia, azken hamarkada hauetan erabat sendotua gertatu da J. I. Tellechea Idigoras, Patxi Altuna eta Joseba Lakarra ikerleen ekarpen bikainari esker. Tellechea jaunari zor zaio Larramendi politikari-historialariaren zentzua —beste alderdi batzu ez aipatzearren— ezagutzeko aukera edukitzea. Patxi Altuna eta Joseba Lakarra irakasleen aurkikuntza eta ikerketak Larramendi euskalariaren ikuspegi eta erizpide osatu eta garbiagoa edukitzeko ezinbesteko gertatu dira.

— Ilustrazioaren mendean, Larramendi ilustratu aurreratua izan genuen. Hala, ordea, ilustrazioak zientzien alorrera ekarritako hedakuntza eta berrikuntzek andoaindarraren lanaren gainean izan zuten eragin negatiborik.

— Euskararen alde eta, orohar, euskal gizartearen alde egin zuen ihardun apogetikoak kalte egin ohi dio Larramendiren obra objektibotasunez aztertzeo ingurukizunari. Egun, oraindik ere, bere obraren inguruko eritzi kontrajarriak ugari

¹ Bibliografia luze eta zabala da zirkunstantzia guztiorien berri eman ditzakeguna. Argibiderik izateko ikus mendeurrenako erakusketarako katalogoan datorrena, non Larramendi eta bere obrak idatzitako ia bibliografia oso-oso jasota dagoen.

dira, eta, eztabaida, landu zituen alorretako edozeinetan pizteko modukoak. Euskarak eta euskal gizarteak garai hartan bizi zituen zirkunstantzien argitara aztertu behar da Larramendiren obra. Eginkizun horretantxe dihardu egun Euskal Herriko Unibertsitateetako zenbait ikerlarik. Ildo beretsutik esan dezagun, horrenbestez, euskalaritza ez dela urte luzez gai izan Larramendik argitara utzitako lanak —eta aipu atxekituagoa behar du honetaz Hiztegi Hirueledunak— erizpide filologiko-linguistiko egokiz neurtu eta bereganatzeko.

— Azkenik, aintzat hartzekoa da josulagunen erbesteraketak (1767) Larramendik sustaturiko euskalari mugimenduaren ihardunera ekarri zuen etena².

* * *

Bada, gatozen orain idatzi honek xede duenaren harira. Manuel Larramendiren jaiotzaren hirugarren mendeurrenak aparteko garrantzia izan du andoaindarrari eta bere obrari zor zitzaion benetako irismena aitortu eta ezagutzera emateko. Eta, xede horretarako joana den mendeurrena egokiera aproposa izan bada, zalantza izpirik ez dago Manuel Larramendik berak argitara emandako obrez gain lehen aipaturiko aurkikuntza, ikerkuntza eta argitaratze prozesuaren bidez bere obra ezezagun zenbaiten berri izateak, sendotu egin duela azken bi hamarkada hauetan haren lanaren edukina, saihestu egin duela Larramendirenganako arbuio ugari eta azaldu egin digula andoaindarrak urte luzetan ondutako lan askoren benetako irismena.

Eta bereziki azken bi hamarkadei nagokie, ikusi besterik ez dagoelako zein pisu haundikoa izan den 1964-90 urteen bitartean haren bizitza eta obren inguruan jorratutako lana. Ez dut, beraz, alperrikakotzat joko azken urteetako bilakaeraren azalpentxoia egitea:

Hizkuntzalaritzari bagagozkio, lehen urratsa mende honen lehen herenekoa da; Nikolas Ormaetxea, "Orixe"-k egin zuena 1930. urtean hiztegia eta gramatikari buruzko idatziak argitaratu eta hitzaldiak eginez³. Ondoren, 1959. urtean eta goian aipaturiko Larramendiri buruzko ikerketaren loraldia eraginaz, Koldo Mitxelena "La obra del P. Larramendi" izenburuko lana azaldu zigun lehenik, aurretentzean beste zenbait artikulua eta iruzkinaz osatuz Larramendirenganako jarrera eta eritziak arnasberritzera zetorren bere ekarpena⁴.

* * *

² Josulagunen erbesteraketa erabakiorra izan zen ere Larramendik idatzitako hainbat obra behin-betirako gal zitezen. Ikus J.I. Tellechea Idigoras jaunak idatzitako hitzaurrea, in "Sobre los Fueros de Guipúzcoa"; Donostia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1983. Colección: Obras del Padre Larramendi.

³ Ikus ORMAETXEA, NICOLAS: "El imposible vencido. Su significación y trascendencia", in *Euskal Eснаlea*, 321. zkia., XX. urtea, 1930. 189-193 orr. Era berean, Ikus ORMAETXEA, NICOLAS: "Larramendiren iztegia", in *Euskera*, XI urtea, IV zenbakia, 1930. 252-261 orr.

⁴ MICHELENA, LUIS: "La obra del P. Manuel de Larramendi (1690-1766)", in *Cuadernos de la Cátedra de Feijoo*, n.º 6. Oviedo, 1959. Ikus, era berean, MICHELENA, L.: "La correspondencia del P. Larramendi", in *B.R.S.B.A.P.*, año XV, cuaderno n.º 4, 1959, 440-442 orr.; eta "El Padre Larramendi. Seguidores de Larramendi", in *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid, Minotauro, n.º 7, 1960, 191-200 orr.

Bestetik, garrantzi berezikotzat jo behar ditugu Patxi Altuna, Joseba Lakarra, Ibon Sarasola eta beste zenbait irakaslek egindako ikerketa lana. Bada, maiz aurkikuntza ikerketa lanarekin uztartuz, P. Altunak “Larramendiren iztegi berria” lanean ⁵, andoaindarraren bere bizitzaren azken arnasetan lantzen ari zen euskaragaztelerazko hiztegiaren berri eman zigun. Joseba Lakarra irakasleak, berriz, plazara emana du Larramendiren euskarazko zenbait idatzi eta andoaindarrari buruzko bere ikerketa lan sakon eta aberatsari —berorren zirdilen batzu argitaratuak dituenez ⁶— aurrera darraio, etorkizunean Larramendiren euskalaritzari buruzko ezagutza iturri oinarrizkoa izango delarik. Ibon Sarasola eta mendeurreneko ekintzen azalpenean aipatuko ditugun ikerlari gazteek osatzen dute Larramendi hizkuntzalari-euskalaria hobeto ezagutzeko bidea egin digun ikerlari taldea.

* * *

Beraz, orain inoiz baino aukera hobea dugu euskarari Larramendik egindako ekarpenaren benetako izatea eta irismenaz jabetzeko; baina hobeagorik izango da atalka-atalka gauzatzen ari diren ikerketak burutu eta zorioneko aurkikuntza berriak gertatzen diren heinean. Azken honi loturik, iazko azken egunetako berri ozgarria dugu Patxi Altunak Deustun egindako aurkikuntza batez jakitera emandakoa, ze, Manuel Larramendiren euskarazko bospasei eskukribu berri azaldu bait dira —euskarazko sermoiak litezke, agian—. Pentsatzekoa da, beraz, oraindik ere izango dela Larramendiren lanak apurka-apurka osatzeko aukera.

Eta, diogun bezala, azken bi hamarkadak funtsezko gertatu badira josulagun euskalariaren ekarpena senez aztertu eta azaltzeko, are garrantzizkoagotzat jo ditzakegu izkutuan genuen Larramendi beraren bizitza eta gizatasuna, batetik, eta bere ihardun politiko-historikoaren berri izateko, zeren, esan bezala, haren bizitzaren arrastoak gertutik ezagutzeko aukera izan zutenez gain —hortik, nonbait, bere garaian herriarengan erroto zuen oihartzunaren neurri haundi bat— izkutu xamarra gertatu bait zaigu ondorengoentzat.

* * *

Larramendiren ihardun eta alderdi kultural hain oparoari dagokion lehen urratsa —lehen aipatua— Aita Fita josulagunak egin zuen 1882an *Corografía de Guipúzcoa* lana argitaratuz. Urtetan izkutuan egon ondoren, Larramendik hain maittea zuen bere Gipuzkoari eskainitako lan zoragarriak ehun urte pasatxo behar izan zuen zentsurak ezarritako isilaldia uzteko. Hala ere, jakin bide zekiten garaioek andoaindarrak idatziz utzitako lanak gehiago zirela, baina 1965. urterarte ez genuen horienik ezagutzerik izan.

* * *

⁵ ALTUNA, FRANCISCO: “Larramendiren iztegi berria”, in *Euskera*, XII, 1967. 139-300 orr.

⁶ Ikus, esate baterako, LAKARRA, JOSEBA ANDONI: “Berriz Larramendiren segiziozko zenbaitez”, in *Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio Urquijo”*, tomo XIX-2, 1985, 439-452. orr.; eta, aldizkari berean, LAKARRA, JOSEBA: “Larramendiren hiztegi gintzaren inguruan”, 11-48 orr.

José Ignacio Tellechea Idígoras ikerle ospetsuari zor diogu Larramendiren edukin politiko-historikoko obra eta idatziak aurkitu, ikertu eta iruzkin anitzez argitara ematea. Aurkikuntzarik garrantzitsuenetakoa, Larramendik Gipuzkoako Foruen gainean eta, eskuhar, Euskal Herriaren berezko eskubide historikoez zuen kezka bizia azaltzen digun *Sobre los Fueros de Guipúzcoa* obra da. Obra honek ez du hutsik Larramendiren edukin politikoko hausnarketa azaltzen; bada, baita ere, euskal kulturaren berezkotasunak gordez ilustrazioaren eremu berrietara zabaldu nahi duen euskal gizartearentzako egitasmo kulturalik. Jakina, *Sobre los Fueros de Guipúzcoa* obrak Larramendik argitara asmo zuen garaian zentsura jasan eta ez zuen argirik ikusterik izan Tellechea jaunak 1983. urtean argitaratu zuen arte. Obra honen garrantzia apartekoa gertatu da, batetik, beronen edukina Larramendik argitaratutako beste zenbait obra apologetikoz —*Discurso histórico sobre Cantabria*, esate baterako— izan zuen arbuioa suntsitzeko lagungarri izan delako, eta, bestetik, andoaindarraren pentsakeraren mamiaz zientzi alor ezberdinetako irakasle eta ikerlarien jakinmina eta azterlana eragin duelako ezinbestez.

Obra nagusi honetatik aparte, Tellechea jaunari zor zaio, urte luzeetako lan eskergeitzaren ondorioz, Larramendik berak idatzitako beste lan asko eta andoaindarrarekin zerikusirik duen dokumentazio franko ezagutzera emana. *Corografía de Guipúzcoa* obrax egindako laugarren argitalpena⁷, atal berri bat gehituz eta zuzenketa anitz eginez, adibide gisa aipa liteke.

* * *

Azkenik, Larramendiren bizitza eta gizatasunari atxikitutako lanak aipatzea besterik ez dugu behar. Alor horretan ere hutsune nabarmena genuen, zeren eta Txomin Agirrek emandako berriez at⁸ oso datu gutxi bait zen andoaindarraren bizitza. Tellechea jaunak, lehenik zenbait artikuluz eta gero *Autobiografía y otros escritos*⁹ liburua plazaratuz Larramendiren bizitzaren zantzua eta bere gizatasunaren mamia irudikatzen aukera eman zigun, obra honetan josulagunak Lagundiko buru nagusiaren aurrean berea zuzitzeko-edo idatzitako biografi osagabe baten atalak iruzkin abarrez eta beste zenbait dokumentazioz osatuz. Tellechea jaunak, aurrerago aipatuko dugun bezala 1990ean Andoaingo Domina jaso zuena Larramendiren bizitza eta obra ikertu eta ezagutzera emanez urte luzez egindako lanaren eskerronez, moldiztegira eramana du andoaindarrari buruzko bere laugarren liburua, eta, beraz, epe laburrean eskumenera izango dugula esan liteke. Pasarte honetan ere aipu berezia zor zaio Patxi Altuna euskaltzainari, Tellechea

⁷ LARRAMENDI, MANUEL DE: "Corografía o descripción general de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa". San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1969. Colección: *Obras del Padre Larramendi*, tomo I. Edición, introducción, notas e índices por J.I. Tellechea Idígoras. XXXV + 349 orri.

⁸ IKUS AGUIRRE, DOMINGO: "A. Larramendi-ren bizitza-ren berri labor bat", in *Euskalzale*, vol. II, 1898. 388-389. orri.

⁹ LARRAMENDI, MANUEL DE: *Autobiografía y otros escritos*. San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1973. Colección: *Obras del Padre Larramendi*, tomo II. Edición, introducción, notas e índices por J.I. Tellechea Idígoras. 308 orri.

jaunak andoaindarraren bizitza eta gizatasunaz hasitako ikerketa lanari jarraitu bait zaio hainbat albiste eta datu berri ekarri¹⁰.

* * *

Aurretik adierazi legez, Manuel Larramendiri urtetan uste izana baino gehiago zor diogu euskalaritza eta euskal kulturagintzaren baitan egindako lan mardul eta adimentsuagatik, eta iaz ospatutako mendeurrenean, zegokion neurriko eskerrona eta onespena aitortzearekin bat andoaindarraren bizitza eta obraren benetako erismena, indarra eta gorputza herriari azaldu nahi izan zioten antolatzaileek. Euskal Herrian gutxi izan dira Manuel Larramendik egindako ekarpen itzelaren neurrikorik egin dutenak, baina gutxi dira ere andoaindarraren ekarpen horren mamia ezagutu eta aintzakotzat hartzera datozenak.

Bada, azkenik, antolatu zen mendeurrenez indartu eta hauspoz lagundu nahi izan genuen bigarren helburu bat; are Larramendik merezi zuen eskerrona eta onespena aitortu eta azaltzeak baino garrantzi haundiagoa dukeena guretzat: Manuel Larramendi duela berrehun urte pasatxo joana izanagatik, ez dira, ez andoaindarraren tasunek utzitako itzalak ez bere obretako eduki asko zaharkituta gelditu. Aitzitik, Larramendiren mezu, kezka eta asmoek bizirik diraute gaur berak jorratutako alor askotan. Berak azalduetako hausnartze eta ezagupide anitzek irakurte hutsarekin non ibiliko ildoazabaltzen digute, eta bere garaia eta orduko gai, arazo eta liskarrekiko eduki zituen endelegu eta sen adimentsuak eredutzat har ditzakegu, baldin eta garaian-garaiko pentsamolde, interes eta jarrerren isuritarra jarritz alderatzen baditugu. Larramendik hasitako ildoan barrena abiatuz jomuga berriak ezartzea litzateke bigarren helburua.

* * *

Aurreko orrialdeetan adierazitakoaz Manuel Larramendiren jaiotzaren hirugarren mendeurreneko ekintza eta ospakizunak antolatzea zertan zeutzan azaltzen saiatu bagara, orain, luzeago jo gabe, mendeurreneko azalpen laburbildua egingo dugu.

Euskaltzaindiak, Andoaingo Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Hikuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak parte-hartu zuten mendeurrenaren antolakuntzan. Erakunde guztion partaidetza gihartu eta antolakuntza burutu ahal izateko Batzorde Programatzaile bat eratu zen, non erakundeetako ordezkariak aurreko orrialdeetan azalduetako aurrekin zenbait aintzat izanik mendeurrenean bultzatu beharreko iharduera eta ekintzak erabaki zituzten. Aurrez, iada, Euskaltzaindiak Andoainen, abenduan, bere III. Gramatika Jardunaldi eta XII. Lexikologi Jardunaldiak egitea erabaki zuen, horiek tajutu ahal izateko "Larramendi" Batzorde suntsikorra sortu zuelarik bere baitan. Mendeurrenaren antolakuntzaz arduratu zen Batzorde Programatzaileak lau bilera nagusi egin zituen antolakizunen programa erabaki artean. Andoainen egindako lehen bileran, bestetik, Manuel Larramendiren bizitza eta obrari buruzko erakus-

¹⁰ IKUS ALTUNA, PATXI: "Larramendiren haurtzaroko albiste berriak", in *UD (Universidad de Deusto)* aldizkaria, 7. urtea, 28. zkia., 8-11. orr.

keta antolatzearen eginkizunaz arduratuko zen bigarren Batzorde bat eratu zen. Erakusketarako batzorde honek hiru bilera nagusitan osatu zuen xede zuenaren erabakia. Ezinbesteko gertatu zen ere, zertutako programa antolatu ahala, beste erakunde batzuren lankidetzaz baliatzea. Horrenbestez, zilegi bekigu Deustuko Unibertsitatearen, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Donostiako “Doctor Camino” Liburutegiaren lankidetzaz aipatu eta eskertzea.

* * *

Mendeurreneko ekintza eta ospakizunak honako ataletan banatu ziren: Erakusketa, Hitzaldiak, Argitalpenak eta Goratzarreko ospakizunak. Lau hauetaz gain, bereizturik gogora behar ditugu aurretik aipatutako Euskaltzaindiaren III. Gramatika Jardunaldiak eta XII. Lexokologi Jardunaldiak, Euskararen Aholku Batzordeak Larramendiren omenez Andoainen egindako bilera eta abenduaren 23ko Euskaltzaindiaren Agerizko Batzarre Irekia eta, azkenik, Andoaingo Udalak José Ignacio Tellechea Idígoras jaunari emandako Andoaingo Domina. Ihardun guztiauen bilakaeraz ondokoa adierazi lege dugu:

* *Hitzaldiak*: ez dugu aipatu beharrik izango, segidan emandako hitzaldien zerrendaren argitara antzemango bait zaio, zein aparteko garrantzia izan zuen antolatutako hitzaldi sortak. Urri, azaro eta abenduan zehar egin ziren Donostia, Gasteiz, Deustu eta Andoainen.

Has Gaitezen Donostian. Urriaren 29tik 31ra bitartean egin ziren Deustuko Unibertsitatearen E.U.T.G.ko hitzaldi aretoan. Hitzaldi sortari Joseba Arregi Aranburu Kultura Sailburuaren hitzez eman zitzaion hasiera, eta ondokoak dira Donostian hurrenez-hurren eskaini zirenak:

- “Perfil humano de Larramendi”, Jose Ignacio Tellechea Idígoras irakasleak.
- “Larramendi dialektogilari”, Rosa Miren Pagola irakasleak.
- “Larramendi Mitxelenaren begietan”, Elixabete Perez irakasleak.
- “Larramendiren bizitza”, Patxi Altuna irakasleak.
- “XVIII. mendeko hiztegi gintza”, Joseba Andoni Lakarra irakasleak.
- “Larramendi euskaldun berritua”, Patxi Altuna irakasleak.
- Donostiako saioari amaiera emanez, mahaingurua bildu zen Gipuzkoako Kutxaren hitzaldi aretoan. Gaia, “Larramendi euskalari” izan zen eta Rosa Miren Pagola, Patxi Altuna, Elixabete Perez eta Joseba Andoni Lakarra irakasleek partehartu zuten.

* * *

Donostiarako, Ibon Sarasolaren “Larramendiren eraginaz” hitzaldia iragarri zegoen arren, euskaltzainak ez zuen bertaraterik izan, eta, adierazi lez, Patxi Altuna jaunaren “Larramendi euskaldun berritua” hitzaldia eskaini genuen.

* * *

Gasteizen, berriz, ondokoak izan ziren azaroaren 6tik 9ra EHU/UPV-ko Filologia, Geografia eta Historia Fakultatean egin ziren hitzaldiak:

- “Larramendiren bizitza”, Patxi Altuna irakasleak.
- “Larramendiren gramatika eta gramatikagintzaren historia”, Ricardo Gómez irakasleak.
- “Larramendi euskaldun berritua”, Patxi Altuna irakasleak.
- “Larramendi aurreko hiztegieak”, Joseba Andoni Lakarra irakasleak.
- “Larramendiren hitz eraketa”, Miren Azkarate irakasleak.
- “Axular eta Larramendi”, Blanca Urgell irakasleak.
- “Larramendi eta literatur gipuzkera”, Xabier Altzibar irakasleak.
- “XVIII. mendeko hiztegieak”, Joseba Andoni Lakarra irakasleak.
- “Larramendi eta Etxeberri Sarakoa”, Gidor Bilbao irakasleak.
- “Larramendiren eragina Iparraldean”, Patri Urkizu irakasleak.
- “Manuel de Larramendi: de “imposible vencido” a posible vencedor”, Pablo Fernandez de Albaladejo irakasleak.
- “Larramendi y el fuerismo vasco del siglo XIX”, Antonio Elorza Domínguez irakasleak.
- “Larramendi: “plenitud y crisis del Régimen Foral”, Gregorio Monreal Cia irakasleak.

* * *

Goian azaldukoen gain, beste hiru hitzaldi gehiago ere iragarrita zeuden, baina hizlariak, azken orduko gorabeherak bitarte, ez zuten horienik eskaintzerik izan. Hala, Ibon Sarasolaren “Larramendiren eraginaz”, Ines Pagolaren “Larramendi XX. mendearen hasierako Gipuzkoako testuetan” eta Jon Juaristiren “Larramendi y las ideas políticas de su época” hitzaldiak ez genituen, azkenik, eskaini. Horieta baten ordez, M. Brea Claramonte irakaslearen “Las ideas lingüísticas del siglo XVIII en Lorenzo Hervás: la descripción de las lenguas del mundo” hitzaldia eskaini zen, Jon Ortiz de Urbina irakasleak irakurria.

* * *

Deustuko Unibertsitatean azaroaren 26tik 29ra bitartean egin ziren Larramendiren pentsakera politikoari atxekituago iragarrita zeuden hitzaldiak:

- “Manuel Larramendi: de “imposible vencido” a posible vencedor”, Pablo Fernández de Albaladejo irakasleak.
- “Perfil humano de Larramendi”, José Ignacio Tellechea Idígoras irakasleak.
- “Larramendi: fuerismo y prenatalismo”, Antonio Elorza Domínguez irakasleak.
- “Las ideas lingüísticas del siglo XVIII en Lorenzo Hervás: la descripción de las lenguas del mundo”, Manuel Brea Claramonte irakasleak.
- “Larramendi: “plenitud y crisis del Régimen Foral”, Gregorio Monreal Cia irakasleak.
- “Actualidad y vigencia del pensamiento larramendiano”, Xabier Arzalluz Antia irakasleak.

Azaroaren 29an, “Larramendi y los fueros vascos” gaiean, mahaingurua egin zen. Moderatzaile José Ramón Scheifler jauna izanik, bertan, Xabier Arzalluz, Gregorio Monreal, José Ignacio Tellechea eta Mikel Unzueta jaunek parte-hartu zuten.

* * *

Andoainen, azkenik, mendeurrenako ospakizunen artean abenduaren 17tik 19ra egin ziren hitzaldiak Udaletxean. Hiru hitzaldi eta mahainguru batez eman zitzaion amaiera mendeurrenako hitzaldi sortari. Ondokook izan ziren:

- “Perfil humano de Larramendi”, José Ignacio Tellechea Idígoras irakasleak.
- “La Guipúzcoa de Larramendi”, José Ignacio Tellechea Idígoras irakasleak.
- “Larramendiren bizitza”, Patxi Altuna irakasleak.

Esan bezala, azken egunean mahaingurua izan zen. “Larramendi euskalari” gaipean eta Patxi Altuna jauna partaide-moderatzaile izanik, Elixabete Perez, Rosa Miren Pagola eta Blanca Urgell irakasleak izan genituen bertan.

* * *

Euskaltzaindiaren “Larramendi” batzorde suntsikorrak antolatuerik, eta mendeurrenako hitzaldi sorta amaituta, abenduaren 22an, lau ikerlek Larramendiren bizitza eta obrari buruzko bere txostenak irakurri zituzten Andoainen, Euskaltzaindiaren XII. Lexikologia jardunaldiak bukatu ostean. Horrela, bada, ondorengo txostenak eta atzetik ekarri zuten eztabaidea-solasaldia entzuteko aukera izan genuen:

- *El imposible vencido* obrari buruz, Ricardo Gómez irakaslearena.
- *Diccionario Trilingüe* obraz, Joseba Andoni Lakarra irakaslearena.
- “Larramendiren eraginaz”, Ibon Sarasola irakaslearena.
- “Larramendi euskaldun berritua”-z, Patxi Altuna irakaslearena.

Garbi asko azaltzen du eskaini dugun hitzaldien zerrenda honek zein neurritan aztertzen ari diren egungo ikertzaile eta irakasleek Larramendi andoaindarren bizitza eta obra. Ezin dugu amaitutzat eman hitzaldiei dagokien ataltxo hau bereziki gure eskerrona agertu gabe hitzaldien programakuntza eta antolakuntzaz arduratu ziren Patxi Altuna eta Joseba Andoni Lakarra irakasleei, ordu luzez aritu bait ziren azken unerarte atze-aurreak batzen.

* * *

* *Erakusketa*: erakunde antolatzaileek bidezko eta beharrezkotzat jo zuten Manuel Larramendiren bizitza eta obrari buruzko erakusketa ibiltari bat antolatzeari. Behin erakusketa horren edukina eta egitura zein izan behar zuen erabakirik, Donostiako “K6 kultur ikerketa eta zerbitzuak” enpresari eman zitzaion Donostian, Gasteizen, Deustun eta Andoainen antolatu beharreko erakustaldien itxuraketa eta antolakuntzarako ardura. Hiru ataletan banatu ziren bistaratu beharreko erakuskinak: batetik, Manuel Larramendik idatzitako obra guztien edizio guztiak erakutsi ziren, nola baita ere andoaindarrak eta haren obraz idatzitako ia bibliografia eta artikuluko kopuru osoa. Liburu mardul hainbatez osatutako bibliografia ugari hau Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekaren ondaretik ekarri genuen, eta bertako bibliotekari den Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak izan zuen bilketa egiteko ardura.

Bisitariei Larramendiren bizitza eta obraren berri emateko Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak bere “Bidegileak” bildumarako argitaratutako “Manuel Larramendi” liburuxka hormairuditarak hedatu genuen, hormairudiak liburuak

gordetzeko beirararen gainetik ipini zirelarik. Liburuxka honen beraren ale bana bisitari guztiei banatu zitzairen antolatzaileek erakusketarako inprimatu zuten katalogoarekin batera. Aipatu liburuxkaren testua, Andres Alberdi irakasleak idatzitakoa, katalogoan ere gaztelerarako itzulpenaz argitara eman genuen, egoki izan bait zitekeen euskararik ez zekiten bisitariarentzat.

Azkenik, erakusketa ikonografia eta ikusentzutezko materialez gorpuztu zen. Ikonografiaren atala, Donostiako "Doctor Camino" Liburutegiko Manuel Larramendiren oleo batez —A. Valverde-k pintatua eta Donostiako Aurrezki Kutxa Muzizipalaren ondarekoa— eta Andoingo Udaletzeko erretratuaz osatu zen —azken hau ere oleoa baina egile ezezagunarena—. Ikusentzutezko atalari, Mikel Arregi jaunak egin eta utzitako bideofilme batez heldu genion.

Lehen esan bezala, erakusketa ibiltaria antolatu genuen, urritik abendura bitartean Donostia (Doctor Camino bibliotekan, 1990, urriak 29/3; Gasteiz (EHUaren Filologia-Fakultatean, 1990, azaroak 6/9); Deustun (Jesuiten Unibertsitatean, 1990, azaroak 26/29) eta Andoainen (Urigain Kultur Etxean, 1990, abenduak 14/23) zabaldu zena. Hitzaldi sortarekin batera zabaldua izateko pentsatua izan zenez, aipatu lau hirietan ehundaka bisitarik izan zuten berau ikusteko aukera tokian-tokiko hitzaldiak hasi ahala —1300en bat bisitarik ikusi zuten—. Hala ere, mendeurrena amaitua izan arren, etorkizunean izango bide da berriz aukerarik Euskal Herriko beste ezain bazter eta herritan erakusketa hau antolatzeko.

Atal hau ixteko, zilegi da eskerroneko aipua egitea Jose Antonio Arana Martija eta Roman Berriozabal jaunen alde, beraien lanak egin bait zion bide erakusketa osatzeko ahaleginari. Eskertzekoa ere Donostiako "K6" enpresak egin zuen itxura ederreko lana, erakusketara bertaratutako bisitariak ahobatez "dotore eta kalitatezkoa" eritzi bait zioten.

* * *

Argitalpenak: argitalepen atala izan ohi da denboraren poderioz, gisa honetako antolakuntza batetan, garrantzirik haundiena bereganatzen duen atala, iragan-kortasunetik at betikotasunak eman ohi bait dio garrantzi hori. Manuel Larramendiren jaiotzaren hirugarren mendeurrenean, lau argitalpen iragarri zituzten antolatzaileek. Dena den, bost dira hemen aipatuko ditugunak, horietatik hiruk jadanik argia ikusi dutelarik:

Bidegileak: Manuel Larramendi: erakusketaz hitzegiterakoan aipatua, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak argitaratua dugu berau. Idazkaritzak dohan eskaini zigun Andres Alberdiren testuaz hornitutako liburuxka hau mendeurrenean zehar Erakusketan eta Andoingo herrian banatzeko aukera. Liburuxkaren zabalkundeak bisitari eta herritarren arten harrera aparta izan zuela esatearekin bat, eskertzekoa da Idazkaritza horren ekimena.

* * *

Manuel Larramendi: euskal testuak: zalantzarik gabe, azken urteotan Manuel Larramendi euskalariak egin den ekarpenik bikainena dugu berau, Patxi Altuna eta Joseba Andoni Lakarra irakasleen eskutik heldu zaiguna. Artikulu honen atariko hitzetan aipatua, ikerketa lana aurkikuntza saioei uztartzu osatutako liburu

honek Larramendik euskaraz landutako testu bilduma dakar. Ez, horratio, euskaraz landutako testu guztiak, aintzinsolasean aipatua bait dut ere aurkituak omen direla andoaindarraren euskarazko testu berriak. Ekarpenik bikainena diogu, eta ez alperrik, liburuaren paratzaileen hitzez garbi azaltzen bait da berau argitaratzearen arrazoiatariko bat:

“(...) Batek baino gehiagok uste bide du, eta dagoeneko berekiko esan ere, apeta edo burutazio bitxi eta burugabe berriren baten aurrean dela; izan ere ez ote digute makinatxo bat bider esan eta berresan ikertzaile ospetsu eta omen handikoek Larramendik erdaraz idatzi zuela, ez euskaraz, bere helburuei omen zegokien legez, eta euskaraz idatziaz exenplu eman beharrean gramatika eta hiztegia utzi zizkigula, euskaraz idazteari soilik bere ikasle Mendiburu eta Karda-beratzek ekin ziotela?

Nekez onar dezake honelako ikuspegi erraxzale eta historiaz landakoa gramatikek eta hiztegiek beren garaiko idazmoldean izan dezaketean erabateko garrantziaz neurriren batean jabetua denak. (...)”¹¹.

Beraz, “euskararen defentsan gazteleraz idaztea”, apologetikoki idaztea ere, behin eta birritan leporatu zaion Larramendik euskaraz egin zuen lanaren neurri eta kalitateaz jabetzeko aukera eskaintzen zaigu liburu honetan, eta, bidenabar, baita gazteleraz hain naharoki idaztearen arrazoiatarikoren bat ere lerroartean.

Bihoakie, bada, gure eskerrona mendeurrenako hainbat eginkizunen ardura hartzeaz gain, liburu hau osatzeko eguneroko lanordeu denbora gehituz hain lan baliotsua ondu duten Patxi Altuna eta Joseba Andoni Lakarra ikerleei.

* * *

Manuel Larramendi: bizitza eta obra: andoaindarrok Larramendiren oho-
rez mendeurrenara egindako ekarpena dugu honakoa. Xabier Lasa Bergara gaz-
teak idatzi eta Andoaingo Udalak, saiakera laburren idazketa sustatzeko bere
ekimenari hasiera emanez, aurtengo urtarrilean argitaratu du. Gure eskoletan
diharduten ikasleei zuzendutako saiakera da hau, idazkera ulerterrezean andoain-
darraren bizitza eta obraren deskribapena egiten duena. Egileak bikainki bildu eta
itxuratutako lana, badu berezkotasunik: Larramendiren bizitza, gizatasuna eta
obraren zantzua egun arte eskura diren obra, iruzkin, berri eta xehetasunen
arabera dagokion osotasunean aurrenekoz azaltzen digu, josulagunaren ihardun
eta alderdi guztiak idazlan bakar honetan bateginda. Egilea beraren hitzetan,
Larramendi aztertu duten jakitunen aldean bere lana apala gertatzen den arren,
bere ahaleginak izan du xede zehatzik: euskaldun gazteria Larramendiren lanaz
jabetzea. Badu bai xede zehatzik, malkarrean gora ibiltzekoa ordea.

Manuel Larramendi: hirugarren mendeurrena: oraingoz izenburu zehatzik
ez duen argitalpena da orain aipamenera dakarguna. Berau izango da mendeurren-
naren mamia jaso eta zabalduko duena argitalpen ororen betikotasunez. Mendeu-

¹¹ Ikus JOSEBA LAKARRAREN aintzinsolasa, 7. orr., in *Manuel Larramendi: euskal testuak*. Andoain: Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Aldundia eta Andoaingo Udala, 1990. Edizioaren prestatzaile: Patxi Altuna eta Joseba Lakarra.

rreneko hitzaldi idatziak bilduko ditu liburuki bat ala bitan. Denetara aurretik azaldutako 28ren bat hitzaldi, Larramendi eta bere obrari buruzko oso argitalpen aberatsa osatuko dutenak.

Azkenik, ezin ahaztu Manuel Larramendik izan duen ikerle eta zuzperzailerik bikainenaren azken argitalpena aipatzea, José Ignacio Tellechea Idígoras jaunak abendurako iragarri bazuen ere, ez du oraingoz argitara ekarri andoaindarrari “Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones” argitaldarien eskutik eskaintzen dion laugarren liburua. Obra honetan, besteak beste, Andoaingo seme eta onegile izan zen Agustin Leitzarekin Larramendik izandako eskutitza-trukea —lehen Argentinan bizi bait zen—, Agustin Leitzaren testamentua —gogora andoaindar honen diruez eraiki zela Andoaingo San Martin Parrokia, Larramendi izendatu zuelarik eraikuntza lanen eragile— eta beste hainbat idatzi eta xehetasunen berri eman bide du Tellecheak. Andoaindarrari 27 urte luzez eskainitako lan etengabeak ez du agortu, nonbait, Tellechea jaunaren larramendizale-tasuna. Laugarren liburu hau inprimategian dago azken moldaketazko ikutuak hartzen.

* * *

Goratarreko ospakizunak eta Euskaltzaindiaren Jardunaldiak: Larramendiri omenaldi zabala eta ohorezkoa eskaini nahi genion Andoainen. Horretarako, hitzaldiak eta erakusketa saihestu gabe, antolatzaileek ekintza kultural zenbaitu antolatu zituzten. Euskaltzaindiak, lehen esan bezala, Lexikologia eta Gramatika Jardunaldiak, eta abenduaren 23ko goratarreko Batzarre irekia antolatu zituen, eta Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak, azkenik, ohizko bilgunea utziz, josulagunaren omenezko bilera egin zuen Andoainen. Omenezko ekintza hauetatik landa, eta herriko eskolume eta gazteei zuzendurik, hitzaldiak antolatu ziren eskoletan —Xabier Lasa andoaindarrak eskainitakoak—, eta eskolarteko *Bost* aldizkaria ia oso-osorik Aita Larramendirena egin zuten umeek.

Iharduera guztiauek laburki azalduko ditugu, jarraian:

* *Euskararen Aholku Batzordea:* adierazi bezala, Batzorde horrek ohizko duen Argomanizeko biltokia utzi zuen bilera Andoainen egiteko Larramendiren omenez, abenduaren 14ean. Batzordeburu Joseba Arregi jauna izan zuen eta Idazkari Mari Karmen Garmendia anderea. Alkateak Batzordeari agurra egin ondoren, Mari Karmen Garmendia andereak Larramendiren euskalaritzaren goraipamen laburra egin zuen, gaur euskararen alde bultzatzen den iharduera ugari andoaindar bidegileak hasitakoen jarraipen direla adieraziz.

27 batzordekide bertaratu ziren Larramendiren omenezko bilkura honetara eta, aztergai nagusia “euskararen normalkuntza udal administraziotan” izenburuko ia izan zen.

* *Euskaltzaindiaren III. Gramatika Jardunaldiak:* Andoaingo Urigain Kultura etxean egin ziren abenduaren 15ean, goiz eta arratsalde, Jean Haritschelhar Euskaltzainburuaren gidaritzapean. Manuel Larramendiren *El imposible vencido* euskararen lehen gramatikaren aipamen ezinbestekoa egin ondoren, aztergai nagusia jorratu eta ikerle ezberdinen txostenak ezagutzera eman ziren. Aztergai nagusia, bidenabar, “Perpaua bakunetik perpaua elkartura” izenburuko ia izan zen.

Dena den, jardunaldi hauen aipamen zehatzagoa akademiak berak aldizkari honean egingo duenez, ez noa hemen luzatzera.

* *Euskaltzaindiaren XII. Lexikologi Jardunaldiak*: Urigain Kultura etxean antolatuta ziren ere aipatu jardunaldiok, abenduaren 21ean, arratsaldean eta 22an, goizez. Aztergai nagusia “Eratorpenaren azterketa” izan zuten bildutako irakasle eta ikertzaileek. Goian azaldutako ohar bera egiten dut, eta aurrera...

* *Andoaindo Domina Tellechea jaunari*: Mendeurreneko ospakizun programa-
tik kanpo, Andoaingo Udalak, abenduaren 21eko aparteko batzarraldian, José Ignacio Tellechea Idigoras jaunari Andoaingo Domina ematea erabaki zuen aho-
batez. Andoaingo herriak egiten dituen hiru ohorezko goraipamenen arteko bat da domina, eta ezin garbiago azaltzen du Udalak hartutako erabakiak izendapena-
ren zioa: “...Manuel Larramendiren bizitza eta obra ikertu, sustatu eta argitaratu
urte luze eta zailetan egin duen ikerlari, idazle eta eragile lan etengabe eta oparo-
ren eskerronez.”

Larramendiren euskalaritza gutxietsiari zegokion duintasun maila aitortzeko ezinbesteko gertatu diren ekarpenak egiteaz gain, andoaindarraren bizitza, gizata-
suna eta obrarik nagusienetakoak ezaguterazi dizkigu 27 urtetako lan eskergaltza-
ren poderioz. Merezia zuen domina, ondo merezia ere!

* *Larramendiren omenezko ikerlarien txostenak*: hitzaldien azalpenari amaiera emanez aipatu dugun irakurketa da hau, abenduaren 22an, arratsaldean, Euskaltzaindiak antolatutako jardunaldiak amaitu ondoren egin bait zen Andoaingo Udaletxean. Aipagarriak oso irakurketa bukatu ostean partaideek (Ibon Sarasola, Joseba Andoni Lakarra, Ricardo Gómez eta Patxi Altuna) izan zuten solasaldietzabaidaren mamia eta bizitasuna.

* *Gorazarreko ekintza kulturalak*: abenduaren 15etik 23ra bitartean burutu ziren Andoainean. Antolatutako ekitaldi kultural hauen ardatza, neurri batetan, Manuel Larramendik berak hurbilean izandako giro edo bizipenen hatsa ezagutzeari izan zen eta bere garaian girotutako ikuskizunak eskaintzea. Ondokook dira, horrenbestez, antolatutako ekitaldi kulturalak:

– Abenduak 14ean, ostiralean, *Loiolako Santutegira txangoa*: Josulagunen ekimenez, Euskararen Aholku Batzordeko partaideek Andoaingo udal agintariekin batera Loiolara txangoa egiten zuten abenduaren 14ean. Loiolako Basilikan, Cacho Erretore jaunak bertaratutakoei harrera egin zien, Larramendiri buruzko hitzalditxo bat irakurri. Ondoren, Manuel Larramendiren langela izandakoa, berak lanerako eskumenean erabilitako liburu eta dokumentuak, Loiolako egonaldi luzean ezagutu bide zituen aretoak eta, irriki haundiz, Larramendiren obra hainbaten lehen edizioak eta eskuskribuak ikusteko aukera izan genuen. Horretaz gain, Larramendiren errautsak gordetzen dituen hilobia eta bere bizitza eta heriotzearen berri ematen duen zenbait dokumentu ezagutu genuen ere. Aipatzekoa da josulagunek eskaini ziguten harrera ona. Ia lau ordutako bisitaldi horretan, bisitariek ez zuten Loiolako Iñigo Deunak jaiotetxe izandako dorre zaharberri-tuan barrena itzuli bat egiteko aukerarik galdu.

– Abenduak, 15, *Donostiako Orfeoiaren emanaldia*: San Martin de Tours Parrokian: emanaldi zoragarria Donostiako Orfeoiak, bi zatitan polifonia eta folklorezko obrak kantatuz, andoaindarrei eskaini ziena. Polifoniazkoan, Madina,

Mozart, Haydn, Fauré, Bardos, Olsson, Mendelssonhn eta Haendel-en musika lanak. Folklorezkoan, Moreno Torroba, Guridi, Sorozabal, Bello Portu, Zubizarreta eta Aita Donostiarenak. Bi zuzendari izan ziren gidari: Orfeoiko titularra, José Antonio Sainz jauna, eta, zuzendari gonbidatu gisa, Gorka Sierra jauna. Organoaren soinua Gerardo Rifón jaunak jo zuen, bikainki jo ere.

—*Andoaingo txistulari eta dultzainlarien emanaldiak eta eskoletako haurren lore eskaintza*: abenduaren 16an eta 23an herriko Txistulari eta Dultzainlarien Bandak mendeurreneko ospakizunetan partehartu zuen. Batetik, aipatu bi egunetan herriko kaleetan barrena ibili ziren bere soinuez andoaindarrak iratzarritz. Bestetik, abenduaren 16an bertan, emanalditxo laburra eskaini zuten Goiko Plazan —hotzak akabatzeko kinka larrian egon bait ziren—, Manuel Larramendiren irudiaren aurrean eskoletako haurrek egin zuten lore eskaintzari hasiera eman aurretik. Abenduaren 23an, berriz, protokolozko segizioan, “Alkate soinua” ekarri zuten.

Andoaingo eskoletako haurrek egin zuten lore eskaintza ederraz esan, Manuel Larramendiren irudiaren inguruan, aurrekua, sagar-dantza, biribilketa eta beste hainbat dantza eskaini zituztela aurretik.

—Haurren lore eskaintza amaituta, “*Argia*” dantza taldearen emanaldia hasi zen Arrate pilotalekuan; beraz, euskal dantzez blaituriko eguna. Ordu t’erdiz, eskenaraketa duin eta zoragarri baten neurria eta koreografiaren ikuttu guztiak zainduz, dantzen gaia hain sutsu eta gartsuki aztertu eta defendatu zuen Larramendiri goratarrea egin zitzaion. Besteak beste, Nafarroa Behereko karnabala, Bizkaiko dantzari dantza, Irradaka eta Arratiako jotak aurkeztu zituzten. Eskertu beharrekoa dantzariek eta taldeko zuzendari den Juan Antonio Urbeltz jaunak moldatutako ikuskizuna.

—*Txistu eta organo kontzertua eta Easo abesbatza*: abenduaren 16an izan zen, arratsaldeko zortziretan hasita, San Martin de Tours Parrokian. Punta-puntakoa gertatu zen kontzertu hau. Lehen zatian Coro Saenz Agirre andereak —organojolea— eta Javier Hernandez Arsuaga-txistularia-txistu eta organo kontzertua eskaini zuten Garbizu, Lemmens, Vierne eta Guilmant maisuen lanez. Bigarren zatian Easo Abesbatzak, Ramon Beraza jaunaren zuzendaritzapean, Gonzalez Bastidaren obrak eskaini zituen. Amaiera emateko txistulari, organojole eta abesbatzak bat egin zuten “Agur Jaunak” eskaintzeko.

—“*Capilla Peñaforida*” taldearen emanaldia: ikuskizun zoragarria eta Larramendik bizitako garaian girotutakoa Santa Krutz Elizan ikusi ahal izan genuena abenduaren 22an. Jose Rada eta Jon Bagües-ek hain bikainki moldatutako taldeak garaiko zortzi maisuen lanak gozatzeko aukera eman zigun “Ilustrazioa Euskal Herrian” izeneko antzezlan kantatu honetan (Peñaforida Kontea, M. Gamarra, José de Larrañaga, Pergolesi, Philidor, Juan Andres de Lombide, W. von Humboldt, Felix M. Samaniego). Ez da ahaztu behar, andoaindarra Peñaforida Kontearekin harremana izaki, gertutik bizi izan zituela Kontearen lan eta eraginez Euskal Herrira ekarri edo indartu ziren joera berriak.

—“*Arriaga*” soka laukotea: goratarreko ospakizunak amaituta, abenduaren 23an, arratsaldeko 19,30etan eskaini zuen bere emanaldia. Bach, D’all Abaco, Scarlatti eta J.C. Arriaga maisuen lanak jo zituen Maite Menendez, Maria Pilar

Martinez, Castor Narvarte eta Ignacio Martinez musikariek osatutako laukote honek. Interpretazio eta soinuketa bikain batez ihardun zutelarik, esan beharrik ez dago zein giro goxo eraman zuten andoaindarren belarrietara.

* *Larramendiren omenezko goratarreko ospakizun publikoa eta Euskaltzaindiaren agerizko batzar irekia*: goratarreko ospakizun nagusia Andoainen egin zen abenduaren 23an, mendeurrenaren bezperetan. Euskaltzaindiak egun horretarako egindako agerizko Batzarre Irekiaren beste zenbait goratarreko ospakizun antolatu ziren, goizeko hamarretatik hasita arratsaldeko orduba bitartean. Mendeurren honetako “Larramendiren egun aundia” izan zen:

– Goizeko hamarretan, Goiko Plazan, Andoaingo alkateak agintari eta gonbidatuei agurra egin zien, San Martin Parrokiko kanpai errepika jo zelarik aldi berean. Jarraian, Larramendiren jaiotetxe izandako Garagorri baserrira igon ziren bertaratutakoak, baserrira “Alkate soinua”-z inguratu zirelarik. Baserri aurrean dantzari gaztetxoek aureskua dantzatu ondoren, ondoko belazean, Joseba Arregi jaunak –Ardanza Lehendakariaren izenean bertaratua– eta Carlos Sanz Diez de Uré jaunak –Andoaingo alkatea– Xabier Laka eskultoreak egindako oroitarria bistaratu zuten, Imanol Murua Gipuzkoako Diputatu Nagusiaren, Jean Haritschelhar Euskaltzainburuaren eta gainerako agintari, gonbidatu eta herritarren aurrean.

– Ondoren, goizeko hamaikak eta erdietan, Garagorri baserritik itzulian protokolozko ikuskizun publikoari hasiera eman zitzaion La Salle etorbidean barrena –Galardi kaletik hasita– San Martin Parrokiko atariraino. Aipatu ikuskizunean, “Argia” dantza taldeko ezpatalariek Manuel Larramendik bere *Corografía*-n hain bikainki deskribatutako ezpatadantzarien protokoloa zertu zuten, protokolozko segizioari hasiera emanez. Atzetik, Andoaingo estandartea eta Txistulari Banda “Alkate soinua” joaz, eta dantzari eta txistularien babesean agintari, euskaltzain, gonbidatu eta bertaratutako herritarrak. San Martin Parrokiko atarira iristeko unean, dantzariak ezpata uztai osatzerainoko biribilketa egin zuten, ezpata uztaiaren barrena agintari eta gonbidatuak elizako ate nagusiraino sar zitezten. Bertan, Gipuzkoako Gotzainak, Jose Maria Setien jaunak, agintariei harrera egin zien. Eliz atarirainoko aipatu ibilaldia egin bitartean, kanpadorrean hogeitamar kanpai dangada jo zituzten kanpai nagusiaz –dangada bat hirugarren mendeurreneko hamar urteko bakoitzagatik–. Ataltxo honi jarraia eman aurretik, zilegi bekigu tarte bat egitea “Argia” dantza taldeak eta Juan Antonio Urbeltz bere zuzendariak egindako lana goraiatu eta eskertzeko.

– Goizeko hamaiketean. Larramendiren omenezko Meza Nagusia ospatu zen bere eraginpean eraikitako San Martin Parrokian. Meza emaile, J.M. Setien gotzaina eta beste lau lagun izan ziren –P. Altuna eta Fr. L. Villasante tarte–, eta meza amaitzeko, Andoaingo Alberto Agirre Abesbatzak “Aita Larramendi” obra kantatu zuen organoaz lagundurik.

– Meza Nagusia amaituta, “Argia”-ko dantzariak Gipuzkoako azpatadantza egin zuten elizatariaren, agintariaren aurrean, eta, ondoren, dantzariak berriz ezpata uztai Udaletxeraino osaturik, agintari, euskaltzain eta gonbidatuak Udaletxeko Batzarre Aretora sartu ziren, eguerdiko hamabietan, Euskaltzaindiaren agerizko Batzarre Irekiari hasiera emateko.

— Euskaltzaindiaren agerizko Batzarre Irekian ondoko agintari eta euskaltzainek partehartu zuten, hurrenez-hurren: Carlos Sanz Diez de Uré, alkatea, bertaratutakoei ongietorria emateko Imanol Murua, Gipuzkoako Diputatu Nagusia, bere agurra egiteko; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, agerizko Batzarre Irekiari hasiera emanaz. Ondoren, Larramendiren omenezko bi txosten irakurri ziren: batetik, Patxi Altuna euskaltzainak, “Larramendiren haurtzaroko urteak” txostena agertu zigun, zeinaz jakinmin haundia sortua bait zen Andoainen, Larramendik haurtzaroan bere jaioterriarekin izan zuen harremanari buruzko datu berriak zekartzanez¹². Altuna jaunak bere saio ederra amaituta, Jose Ignacio Tellechea Idigoras jaunak, betiko bere estilo zoragarria landuz, “Larramendi: un guipuzcoano trasplantado y vuelto a implantar” txostenaren edukina agertu zien batzartutakoei¹³.

Txostenen irakurketa amaitu ondoren, eta bukatzeaz, Euskadiko Lehendakariaren izenean Joseba Arregi Kultura Sailburu jaunak partehartu aurretik, III. mendeurreneko domina oroigarrien banaketa egin zen. Horrela, bada, bertaratutako euskaltzain da ikerlariak zegokiena jaso ondoren, Andoaingo alkateak zilarrerzko domina bana eman zien Imanol Murua jaunari —Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean—, Jean Haritschelhar euskaltzainburuari, Mari Karmen Garmendia andereari —Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren izenean—, José Ignacio Tellechea Idigoras jaunari —Donostiako Doctor Camino Taldearen izenean—, Juanjo Zearreta jaunari —Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekaren izenean—, Andoaingo Garagorri familiari, eta, azkenik, Joseba Arregi jaunari —Kultura eta Turismo Sailaren izenean—. Domina oroigarrien banaketaren ondotik, esan bezala, Joseba Arregi jaunaren hitzek agerizko Batzarre Irekiari eta Mendeurreneko ekintza eta ospakizunei amaiera eman zioten.

Beraz, Euskaltzaindiaren agerizko Batzarre irekia amaituta, mendeurreneko ekintza eta ospakizun guztiak ofizialki burututzat jo ziren.

* * *

Manuel Larramendik jaso zuen bere jaiotzaren hirugarren mendeurrenean ondo merezitako goratzarre eta omenaldia. Baina, lehen esana dudan bezala, ez dago berriz egiterik ospakizunezko mendeurrenak igaro ahala andoaindarrarekiko egin izan ohi duguna. Bada, beraz, Larramendiren ihardunek eta obrek utzitako ikasiei (zer ikasiari) gure egunerokotasunean dagokien lekua behin-betiko egiteko garaia, alor ugaritako bere ekimenaz askori erakutsi bait zion, aurrenekoz, zeintzu ziren eginkizun eta zeintzu garaiz utzi beharreko bidezidor suntsikorrak. Euskalaritza eta euskalgintzaren itsumutil izan zen luzaro, sarri aintzakotzat hartua izan ez den arren itsuak ikusmena osatu ahala ez dizkiolako barkatu bidaiaren baitetan egindako amarrukeriak.

¹² Ikus ALTUNA, PATXI: “Larramendiren haurtzaroko albiste berriak”, in *UD (Universidad de Deusto)* aldizkaria, 7. urtea, 28. zkia., 8-11. orr.

¹³ Tellechea jaunaren txostena, (10) eta (12). oharretan aipatutako Patxi Altuna jaunaren txostenarekin bat *Euskera* agerkari beronetan argitaratua dator.

MANUEL LARRAMENDIREN III. MENDEURRENEAN

Andoain, 1990-XII-23

*Carlos Sanz Diez de Uré
herriko alkatea*

Carlos Sanz Diez de Ure, Andoaingo Alkatearen ongi-etorria.

Pozik gaude gure artean Euskaltzaindia izateaz, M. Larramendiren ohorez, Euskaltzaindiaren batzar-irekia egiteko. Ongi-etorriak izan zaitezte andoaindarren izenean.

Egunon Jean Haritschelhar jauna.

Ohore haundia da baita ere Lehendakariaren izenean andoaindar bat izatea gurekin. Eta ohorezko eta atsegin Gipuzkoako Diputatu Nagusia bera Andoainera etortzea gaur Larramendiren omenaldi honetara.



Andoain, 1990-XII-23: C. Sanz Diez de Uré Andoaingo alkatea (ezkerrean) Euskaltzainburuarengandik –J. Haritschelhar– domina jasotzen.

Egunon, beraz, Joseba Arregi eta Imanol Murua jaunei. Eta egunon Mari Karmen Garmendia anderea, Jose Ignacio Telletxea jauna, euskaltzainak, euskaltzain urgazle eta gainerako gonbidatu eta herritarrei.

Gaur, Manuel Larramendiren jaiotzaren mendeurreneko omenaldi nagusia ospatzen ari gara Andoainen.

Horretarako, Euskaltzaindiak, bere ageriko batzar-irekia egiten du gure herrian, eta euskaltzainekin bat egiten dugu Jaurlaritza, Aldundi eta Udaleko ordezkariok.

Euskaltzaindiaren agerizko batzar-ireki honetan gaur gurekin Manuel Larramendi inork gutxik bezala ezagutzen duten bi ikerlari daude: J. I. Telletxea Idigoras jauna eta P. Altuna jauna bere hitz eta esanetan mendeurren honetako Larramendiren azken aipamen eta oihartzunak entzungo ditugu. Baina izango da, gerora ere, zer entzuterik.

Mila esker mendeurren honetan parte hartu duzuen ikerlari, hizlari, irakasle, euskaltzain eta Erakundeetako ordezkari. Mila esker, benetan, andoaindarren izenean. Nire aldetik, besterik ez, orain Gipuzkoako Diputatu Nagusiak, Imanol Murua jaunak, hitz egingo du.

M. LARRAMENDIREN III. MENDEURRENEAN

Andoain, 1990-XII-23

*Imanol Murua
Gipuzkoako diputatu nagusia*

Duela 24 urte, Manuel Larramendi aitaren heriotzearen 2.mendeurrena ospatu genuen. Andoainek, bere jaioterriak, hainbat hitzaldi antolatuz ospatu zuen; Gipuzkoako Foru Aldundiak ere, Gipuzkoari buruz idazle honen argitaratugabeko hainbat dokumenturen bilduma bat argitaratu zuen.

Larramendiren lanari buruz hainbeste ikertu duen José Ignacio Tellexea Idigorasek ere, zenbait artikulua idatzi zuen *Diario Vasco* egunkarian eta *Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen Boletinean*.

Orain honetan, ia 25 urte beranduago, Larramendiren jaiotzaren hirugarren mendeurrena ospatzeko, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskaltzaindia eta Andoaingo Udala elkartu dira, Donostiako EUTG-n, Bilboko Deustuko Unibertsitatean eta Euskal Herriko Unibertsitatean idazleari buruzko ziklo ugari egin direlarik. Euskaltzaindiak saio bereziak burutu ditu, bere bizitza eta lanari buruzko erakusketa bat ospatu da eta gaur, bere jaioterrian, mendeurren honi amaiera emateko bildu gara guztiok.

Aipatu ditudan bi mendeurren hauen ospakizunen arteko desberdintasuna, egoera eta giroan eman diren aldaketek gain, José Ignacio Tellexea Idigorasek Larramendiren izaera eta lanari buruz egin dituen aurkikuntzei zor zaio.

Orain arte ezezagunak izan ditugun idatzi askoren bitartez, eta bereziki bere Autobiografiari esker, gizon handi haren bizitza, poztasun eta atsekabeak ezagutu ahal izan ditugu. Merezimendu asko izan baditu ere, nik Larramendiren 2 ezaugarri azpimarratu nahi nituzke bereziki:

Alde batetik, bera izan zen euskararen erabilera eta ikerketa gehien bultzatu zituenak, bai bere Gramatika eta *Hiru Hizkuntzetako Hiztegiaren*



Andoain, 1990-XII-23: *Ezkerretatik eskubitara*: C. Sanz Diez de Uré Andoaingo alkatea, J. Haritschelhar euskaltzainburua, J. Arregi Euskal Komunitate Autonomoko kultura kontseilaria, I. Murua Gipuzkoako diputatu nagusia eta Mari K. Garmendia E.K.A. Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia.

argitarapenaren bitartez, eta baita bere pertsonalitate bizia zabaldu zuelako ere.

Larramendik euskarari eman zion bultzada hark, Mendiburu eta Kardaberazaren ahaleginak izan zituen beti lagun. Larramendiri esker, garai hartan izan zuen euskarak bere lehen berbizkunde modernoak. Bizitzaren hainbat etsipenek, bere heriotzera bitartean, Loiolara bizitzera bultzatu zuten Unibertsitatearen deiak alde batetara utziz. Baina erabaki hau zorionezkoa izan zen bestalde, bere bizitzak eta bere lanak beste ibilbide batzuan zitzan. Honela, bai idatzi bidez eta bai hitzez, euskararen erabilerari eta ikerketari bultzada erabakikor bat eman zion. Aldaketa honi euskaldun guztiok gure esker ona zor diogu.

Euskarari eman zion bultzada guztiz garrantzitsua izan bada ere, ezin genezake ahantz Gipuzkoako Foruei buruz Telletxea Idigorasek argitaratutako obran Larramendik azaltzen duen euskal kontzientzia eta nortasuna, bere mendearen lekuko bakarra eta katea luze baten oinarriko maila bezala agertzen bait da.

Beranduago iritsiko ziren zenbait egoeren iragarle eta euskal kontzientziaren iratzartzaile izan dugu, Gipuzkoako Batzar Nagusien aurrean zenbaitetan azaldu zuen bezala. Gaineko eta kanpoko mehatxuen aurka burrukatu zen baina baita bere herriaren, eta askotan bere ordezkarien, ezjakite eta lokartzearen aurka ere.

Berak bazekien Gipuzkoako Foruen alde hasitako burruka Bizkai-koentzat ere baliagarria zela, beste aldeko euskaldunak ere ez zituen ahaztu, bere *Gramatika*n euskararen euskalkiak ahortzi ez zituen bezala. Paregabeko gizona izan zen garai hartan eta bere maisugoak orain arte ezjakinean iraun badu ere, azkenik merezi duen balioa eman zaio.

Baina beti azaldu izan duen euskal kontzientzia honez gainera, Larramendi gipuzkoarra dugu eta guztioi bizkaitar izendatzen gintuzten garai haietan, Gipuzkoaren bereizgarritasuna defendatu zuen *Corografia* delako liburuan.

Liburu honetan bere garaiko Gipuzkoa zenaren deskribapen iradokitzaille bat egiten digu: bere geografia, mendiak, ibaiak eta haranak, bere lanerako moduak, ohiturak, instituzioak, hizkuntza. Kosmopolitismoaren garaian, berak, singulartasuna eta berezitasunak azpimarratzen ditu.

Etorkizuneko etnografoei aurre egiten die, bere aberritxoak deitzen duen Gipuzkoaren deskribapen bizi honekin. Ez dago bere lurra hainbeste maite izan duen gipuzkoarrik eta bere bihotzean hainbeste maitasunez barneratu duenik. Gipuzkoarren birtuteak goratzen ditu eta beren akatsak zentsuratzera ere ausartzen da eta probintzia eta Diputazioa bere ama deituko ditu.

Larramendiren izaeraren berreskuratzeak eta bere herriarekiko zuen maitasunak, adibidetzat hartzeko onerako gizon jakintsu eta bere herriaren maitale baten aurrean jartzen gaitu, maitasun hori gainera obratan bihurtu zuelarik. Horregatik, eta lehen aldiz, Larramendiren mendeurrenak orain arte izan ez duen handitasuna izan du. Larramendi Euskal Herriko gizon eskergarria dugu eta Euskal Herriak merezi duen omenaldia eskaini dio.

MANUEL LARRAMENDIREN III. MENDEURRENA

Andoain, 1990-XII-23

Jean Haritschelhar

Euskaltzainburuaren sarrerako hitzak:

Agintari Jaun Andereak,
Jaun Andereak, agur.

Pozik dago Euskaltzaindira holako bilera batean, hainbeste agintari bildurik eta bilera irekia izanez hainbeste jende eta herritar. Denak nahi ditut agurtu, baina zu bereziki, Andoaingo alkate jauna. Ez bakarrik agurtu, eskertu ere bai. Aste honetan hiru egun iragan ditugu hemen, joan den astean biga. Egin diguzu ongi etorririk kartsuena. Hortakotz, bai zu eta Udaleko zinegotziak eskertu nahia ditut ahortzi gabe haien artean Jon Unanue, gurekilan beti egona baita eta hari esker egun goxoak iragan ditugulakotz.

Bilduak gara Udaletxe honetan Aita Larramendiren jaiotzaren III. mendeurrenaren ospatzeko. Denok badakigu nor zen Aita Larramendi, aurten hainbat eta hainbat mintzalditan erakutsi delakotz zer izan den haren bizitza, zer izan diren haren obrak. Euskaltzaindiak parte hartzen duelarik ospakizun hauetan ohoratu nahi ditu gramatikalari eta hiztegilari. Ez da Euskal Herriak ezagutu duen gramatikalari eta hiztegilari lehena, baina *El imposible vencido* da argitaratu den lehen gramatika, Larramendiren hiztegia da publikatu den lehen hiztegia. Hortakotz merezi dituzte Euskaltzaindiaren omenaldia, hortakotz ere, ildo beretik joanez Euskaltzaindia sartu da lan sakonetan bere xedeak betetzen dituela.

Gramatika: Duela orain hamar bat urte, 1979-an hain zuzen sortu zen Gramatika batzordea. Aita Lafitte izan da batzordearen lehen burua eta hura zenduz gero Aita Patxi Altuna. Lan sakonetan sartua da Gramatika batzordea. Jadanik hiru liburu argitaratu ditu: EGLU I, perpaus bakuna aztertzen duela, EGLU II, aditzari buruz egina, EGLU III lokailuak ikertuz. Hirugarren liburukiarekin sartzten da edozein hizkuntzatan, hain guti aztertua izan den joskeran.

Duela zortzi egun hain zuzen hemen bertan bildua zen Gramatika batzordea eta erabaki zuen zer izanen zen datozen urteetako ikerketa programa: juntagailuak, menderagailuak, perpaus elkartuak. Hitz dizuet hemendik zenbait urteren buruan Euskaltzaindiak bere Gramatika ukanen duela. Duela hirurogei urte aispatzen zen xedea orain obratzen ari dugu.

Hiztegitza: Euskaltzaindiaren “opera magna” dudarik gabe Orotariko Euskal Hiztegiarekin.

Laugarren liburukia Iruñean presentatu dugu berrikitan. Orotarat zenbat izanen diren ez dakigu xuxen: dotzena, hamabost bat.

Hor agertuko dira euskal literaturan idatzi diren hitzak, jakinez noiz erabiliak izan diren lehen nork eta zein euskalkitan erabiliak izan diren. Lan ikaragarria, orain artio nehoiz agertu ez dena, Azkueren hiztegia baino zabalagoa.

Oraingo tresneria baliatuz *Orotariko Euskal Hiztegia* ari diren langileek —Ibon Sarasola buru Koldo Mitxelena zenduz gero— eskaintzen dute euskararen altxorrik zabalena. Hemendik zenbait urteren buruan, behar den denbora emanez, Euskaltzaindiak ukanen du bere hiztegia.

Ez ditut ahantzi nahi hiztegitzako bertze bi azpibatzerde: *Egungo Euskararen Bilketa Sistemakoa* deritzana eta *Lexikologi Erizpideen Finkapen* batzordea. Herenegun eta atzo bigarren hau bildua zen hemen, Andoainen. Hitz elkartuak bi urtez aztertu dituzte eta orain eratorpenean sartua da. Laster Euskaltzaindiak hitz elkartuen idazteko “gomendioak” emanen ditu.

Lan horiek dira, Aita Manuel Larramendiz oroituz, Euskaltzaindiak Euskal Herriari egiten dion eskaintza. Eskaintza ederra, euskaltzain osoek, euskaltzain urgazleek eta laguntzailik beren jakiturea eta denbora, parte bat bederen, emaiten baitiote Euskaltzaindiari, euskararen onerako.

Euskaltzaindiak zazpi probintziatako euskaltzainak biltzen ditu, euskaldun eremu osorako sortu da eta sortuz gero Iparraldeko nahiz Hegoaldeko euskaltzainak hautatu ditu. Aita Larramendi-ren omenaldi honetan aipatu nahi nituzke XVIII.mendeko bi euskaltzale haundi. Aita Larramendi, garai batean, Iparraldean bizi izan da, Baionan, Mariana Neuburgokoaren erremusinari zelarik. Denbora berean Sarako Joanes Etxeberri Saratik aldatu zen, Berara joan, handik Hondarribira eta azkenik Azkoitira mediku edo sendagile gisa eta han hil zen 1749-an. Kezka berbera zaukaten biek: euskal gazteria behar zela hezi eta horretarako beharrezkoa zela euskaldunen eskuetan eman euskararen ikasteko eta lantzeko tresnak. Biak gramatikolari eta hiztegilariak ziren, biek lokarri sendo bat ezarri dute Iparralde eta Hegoaldearen artean XX.mendean Euskaltzain-

diak eginen duena. Etsenplua eman digute duela orain bi mende eta erdi baino gehiago. On da haietaz oroitzea.

Duela orain dotzena bat urte sartu da Euskaltzaindia Gramatika eta hiztegiaren lan sakonetan. Baina ez zezakeen deus egin ez balu ukan agintarienganik diru-laguntza. Berrikitan, Oñatin, 1989-ko urriaren 7.an sinatu du Euskaltzaindiak. Eusko-Jaurlaritzarekin, Nafarroako Gobernua-rekin, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko agintariekin Hitzarmen bat kontutan hartzen dituenak egiten dituen lanak. Egun ere, maiz egiten dudan bezala, eskertzen ditut Euskal Herriko agintari guz-tiak, haien laguntzari esker beteko duelakotz Euskaltzaindiak bere eginbidea.

LARRAMENDIREN HAURTZAROKO URTEAK

Andoain, 1990-XII-23

Patxi Altuna

Ohore handitzat daukat —eta hau batez ere zuei diotsuet, Andoaingo udaleko agintariok eta gainerako jaun-andre andoaindarrok— aita Larramendi handiaren herrian, herriko udaletxean, herriak lehengo egunetan eskaini dion omenaldiaren bukaeran hari buruz zuei hitzalditxo bat egin ahal izatea. Ez baitzen alferrik izan Larramendi orduarte apika Gipuzkoak euskal kulturaren munduan eman zuen semerik distiratsuen eta geroztik ere gaur arte izan diren bospasei sonatuenetako bat. Denboraren laburrak, ordea, neure mintzaldiari muga hertsia ezartzera bortxatzen bainau, gainerako bizi-aroak alde batera utzi eta haurtzaroko urteak mintzagai hartzea erabaki dut, batetik Larramendiren bizitzan gutxienez eta gaizkienez ezagutzen diren urteak direlako eta bestetik bere jaioterrian edo oso inguruan eman zituen urte bakarrak izan zirelako.

Orain arte Larramendiren haurtzaroz genekien guzia Tellecheari zor genion. Honek haren *Corografía de Guipúzcoa* argitaratu zuenean, Andoaingo parroki liburuek gorderik zeuzkaten Larramendizko argibide guziak xurgatu zituen pazientki eta gero guri eman zizkigun ezagutzera, bai eta Larramendi hiltzean haren lagun batek, aita Barco-k edo, idatzi zuen hiltzeri buruzkoa. Haiek ziotena baino gehiago jakiterik ez zegoen, non eta iturburu berririk han edo hemen agertzen ez zen. Larramendiren haurtzaroz gehiago ikasteko iturriek agortuak ziruditen. Ez genuen inoiz jakingo, esate baterako, nongoa zuen ama eta nongoa aita, noiz eta non ezkondu ziren, zenbat seme-alaba izan zituzten, zergatik idatzi zuen Larramendik Lagundian sartu zen egunean bere gurasoak “vecinos de la villa de Hernani” zirela eta ez Andoaingoak, eta abar.

Orain ordea Hernaniko parroki liburuei eskerrak albiste berriak eskuratzeko txanda izan dugu, guztiz ustekabea. Hemen, Andoainean, jaioa zenez gero ez zitzaion inori bururatu, izan ere, Hernaniko liburuek Larramendiren gainean ezer berri irakatsiko zigutenik. Zergatik irakatsi behar ziguten? Bai al zuen zer ikusirik Larramendik Hernanirekin, ala? Guk genekiela, ez. Eta halere, egia esan, haren *Autobiografía*-ren irakurtze ardurazkoak ernerazi behar zigun gutxienez halako susmoa, zuhurra-

go izan bagina. Harritzekoa baitzen nolako jaidura eta grina erakusten zuen han Larramendik Hernanirekiko, behin eta birritan aipatuz. Halako batean —ez behar bezain goiz— “Zer du Larramendik Hernanin?” galdegin nion neure buruari eta galdera horren erantzun bila Elizbarrutiko artxiboko bidea hartu nuen. Hona zer irakatsi zidaten, eta zer ez, Hernaniko parroki liburuek.

Zer irakatsi ez zidaten kontatuz hasiko naiz, artxibo honetako liburuetan beteguneak adina baitira hutsuneak eta haiek pozgarri bezain mingarri bigarrenak. Liburu batzuk falta dira, izan ere; hemengoak bakarrik ez, Hernanikoak ere bai, eta beste herrietakoak, lehengo mendeko gerrateetan eta honetakoan galdu, izkutatu, ostu eta hondatuak. Baina ez da hori arrazoi bakarra bila zabiltzan zerbait ez aurkitzeko; han dauden liburuetan beretan ere badira hutsuneak, eta hala batzuetan eskuartean daukazun liburuan egon behar lukeelarik zerbaitek, ordu piloa haren bila galdu eta gero, etsitzen duzu ez dagoela. Esate baterako, Larramendiren amaren bataio agiria ez da inon ageri eta ageri behar luke, jaiotze behar izan zuen urtearen arabera egotea zegokion liburua hantxe baitago. Ez amarenik dago eta ez aitarenik, ez hemengo liburuetan eta ez Hernanikoetan, eta horrenbestez ez dago jakiteko modurik zein ziren Larramendiren hirugarren eta laugarren deiturak.

Ez pentsa kasu bakarra dela. Hara! Larramendi deituratik atera gabe, Margarita Larramendiren bataio agiririk ere ez da ageri. Nor zen Margarita?, galdegingo du norbaitek. Entzun. Frantzisko Larramendi bat 1657ko uztailaren 8an Maria Juana de Barcaiztegui zelako batekin ezkondu zen Hernanin. Bederatzi edo seme-alaba izan zituzten; hantxe daude guzien bataio agiriak. Horietaz gainera badakigu ziur, ordea, Margarita bat ere, gero herriko Alkate izan zen Frantzisko Beroizekin ezkondu zena —eta jakizue bidenabar Beroiztarrak aita Larramendiren ahaideak zirela: “Vino-me un propio de Hernani, diciéndome que mi primo Beroiz...”, dio *Autobiografía*-n, (20. or.)—, lehengo Frantzisko de Larramendi eta Maria Juana de Barcaiztegui haixen alaba zena, eta hala ere ez da inon Margaritaren bataio agiria azaltzen. Bada, apustu egin behar banu, egingo nuke urteen egokitasunari begiratu, senar-emazte beraien alaba zela Larramendiren ama ere. Beraz Manuela Larramendi Barcaiztegui zeritzan, ene ustez, nahiz frogarik ez dudana. Ez eta bi ahizpen bataio agiririk ere.

Natorren orain Hernaniko paperek ekarri dizkiguten albiste berriak kontatzera. Bagenekien lehendik noski Larramendi hemen sortua zela eta gurasoak, Domingo de Garagorri eta Manuela de Larramendi izan zituela ere bai. Ez genekien ordea nongoak ziren, non jaiotze alegia, ez eta non ezkondu ziren eta noiz, hemengo parroki liburuetan ez baitzen haien ezkontzako agiria agertzen, Tellechea jaunak aspaldi idatzia zuen bezala: “No se conserva el libro de Matrimonios donde debiera estar la partida de los padres de Larramendi” (*Autobiografía*, 289. or.). Baina liburu hori

han egon balitz ere, ez zukeen berehalakoan aurkituko haien ezkontzako agiria, hemen ez baina Hernanin ezkondu baitziren eta hantxe baitago beharrik agiri hori. Horri eskerrak dakigu orain non eta noiz ezkondu ziren, bai eta non jaioak ziren ere bata eta bestea. Honela dio agiriak: “A veinte y ocho de Octubre del año de mil seiscientos y ochenta y ocho se casaron en mi presencia Domingo de Garagorri, natural de la villa de Andoain, y Manuela de Larramendi, natural de esta villa...”. Beraz gure Manuelen aita andoaindarra zen, baina ama hernaniarra, eta ezkontza andregaiaren herrian egin zen. Orain aditzen da hobeki zergatik izan zuen Larramendik bizi guztian halako irritsa Hernanirekiko. Ama beti ama izaki!

Halaz guztiz aita ez ezik ama ere hemengoa zen jatorriz, ene ustez. Garagorritarrek beren sorburua hemen, Andoainen, zutela ez da dudarik. Hernaniko bataio liburuetan ageri diren lehen Garagorritarrak gure aita Manuelen bost senideak dira; lehenago ez zen han Garagorritarik. Larramenditarrek jatorriz nongoak diren liburuei bakarrik begiratzuz ez da hain garbi ageri, ezen herri batean zein bestean agertzen dira —Hernanin eta Andoainen, bietan esan nahi dut—, eta bietan goiz, eta bietan piloa. Badirudi halere beste iturburuei begiratzuz aitortu behar dela Larramenditarren sehaska hemen zegoela. Zergatik? Hernanin ez omen delako Larramendi izeneko baserririk, ez bordarik; hemen aldiz badira Larramendi eta Larramendi Txiki izeneko baserriak, eta Larramendi borda ere bai, esan didatenez.

Ezkontzako agiri horrek badu azpikaldean *Advertencia* delako ohar bat, ez jakin nork eta noiz idatzia, bai ordea gurasoak Hernanin hil eta ehortzi ondokoa, hor bertan esaten zaigunez; agian Larramendi bera oraindik bizi zelarik, edota ez, hori ez baita esaten; zernahi gisaz Larramendi iadanik gizon ospetsua eta gizartean ezaguna bilakatu ondoren erantsia, bestelako semeen gurasoei ez baitzaie ezkontzako agirian horrelako eraskinik ezartzen: “Los dichos Domingo de Garagorri y Manuela de Larramendi fueron los padres legítimos del Rmo. P. M(aestro) Manuel de Larramendi, de la Compañía de Jesús, que por casualidad fue bautizado en Andoain el año 1690 por Navidad; y están enterrados en esta Parroquia”. Ez da oso begibista ona eta zolia behar igertzeko nork idatzi zuen ohar hori: Hernaniko parrokian erretore gertatu zen geroagoko norbaitek, seguru asko hernaniarra zen batek, Manuel Larramendi handia hemen jaio izanak min ematen zion batek.

Egia al da gure Manuel halabeharrez eta ustekabean bataiatu zela —eta jaio, noski, nahiz hori oharrak isiltzen duen— hemen, Andoainen? Galde horri erantzuteko beste zenbait berri jakitea beharrezko da. Entzun dugu 1688ko urriaren 28an ezkondu zirela gure Manuelen gurasoak. Baina gizakia gizaki lehen, orain eta beti, eta gurasoak ezkondu baino lehenagoko haurrak orain baino lehen ere izan baitziren munduan, Domin-

gok eta Manuelak ere laprastada bat, zirristada bat egin zuten nonbait eta ezkondu aurretik neskaitila bat, Maria Josefa, ekarri mundura 1687ko abuztuaren 21ean: "...fue bautizada María Josefa de Garagorri, hija natural de Domingo de Garagorri y de Manuela de Larramendi, siendo padrinos Don Francisco de Beroiz y Ana de Garagorri...". Umea Hernanin bataiatu eta handik hamalau hilabetetara ezkondu ziren, alajaina, gurasoak han berean. Ez berehalakoan.

Badirudi gertari horiek Hernanin izan baziren ere, ez zutela ezkonberriek han luzaro iraun —ez dakigu zergatik, gertatuen lotsagatik edo beste zerbaitegatik—, bada ezkondu eta urtebete baino lehen (1689-X-24) beste ume bat ekarri zuten mundura, mutikoa; hemen ordea, Andoainen, eta hemen bataiatu. Izena Martin ezarri zioten. Halaber hamalau hilabete geroago hemen bertan sortu zen, dakigun bezala, gure Manuel eta etziko egunez, Eguberriz, bataiatu zuten duela 300 urte. Horiek horrela direlarik, garbi dago hiruzpalau urte bederen bizi izan zirela hemen —ez gehiago, egia, laster esango dugun bezala—, ondorengo seme-alabak lehenbiziko Maria Josefa bezalaxe Hernanin sortu baitziren eta bataiatu. Aski dira ordea hiru urte eta aski Manuel ez ezik Martin ere hemen jaio zela jakitea, Hernaniko erretorearen hitzak —“por casualidad fue bautizado en Andoain”— gezurtatzeko.

Denbora gutxi bizi izan zen hemen, egia, hiru urte eta erdi gehiezez, haren ondorengo senidea, Maria Ignacia, 1694eko maiatzaren 20an sortu baitzen Hernanin. Hiru urte eta erdi bakarrik, baina aski izan zen denbora hura haren begietan betiko eihorik geldi zitezen Garagorri base-ri inguruko ikuspide zoragarriak eta haren belarrietan josirik han ondoko Aiurri errekaen marmarrak eta surmurrak, Agustín de Leiza hil zeneko hileta sermoian berak, hil baino hiru urte lehenago, pulpitotik hementxe esan bezala: “Ez nadin ala ere aserretu”— dio halako batean biziki sumindurik—; “aserrean sartu ezquero, gaistoa naiz ta gogorra; gogorazten zait non jaioa naizan ta pizten zaizquit Aiurri errecac eransi cizquidan suac eta garrac”.

Berriro Hernanin kokatu zirenean, lehenxeago aipaturiko Maria Ignaciaz gainera beste hiru seme-alaba izan zituzten bospasei urteren buruan: Juana Bautista (1697-X-8); bi urte geroago (1699-X-27), azkeneko hori dirudienez jaio berria edo oso umerik behintzat hil zelako, beste Juana Bautista; eta azkenik Domingo Ignacio (1701-IV-17), aitaren izen berekoa, Domingo. Zazpi anai arreba izan ziren danera, beraz, eta ez hemen Andoainen sortutako biak, Martin eta Manuel, bakarrik, orain arte uste genuen bezala.

Hernanin kokatu zirela jakiteak argitzen dizkigu, aita Larramendi Loiolan hiltzean, bere lagun aita Barco-k edo idatzi zuen hilberriko hitz haiek: “Lleváronle de muy niño a Hernani, donde aprendió la escuela, y

dieron en llamarle Larramendi, del apellido de su madre, y con él continuó en la religión, aunque con algún sentimiento de su parentela por línea paterna, que es noble y larga”. Umeegi zen Andoaindik atera zenean eta artean eskolara hasi gabea; gero hasi zen, Hernanin, pixka bat koxkortu zenean, eta, jakina, hango mutikoek ezinbestean Larramendi deitzen zuten, ama hangoa zuenez gero haientzat Larramenditarra baitzen, eta ez Garagorritarra. Orobat argitzen dizkigu Larramendik berak Lagundian sartzean idatzi zituen beste hitz haiek, alegia bere gurasoak “vecinos de la villa de Hernani” omen zirela.

Hona azkenik Hernaniko liburuei esker argitu ahal izan den Larramendiren haurtzaroko beste puntu bat: egia al da, mutiko zelarik ama hil eta, umezurtz gelditu zela? Hala kontatu izan dugu guztiok behin eta birritan, 1973an Tellecheak lehen aldiz, nik dakidala, erakutsi zigunez geroztik 1701garren urtean gutxi gorabehera Domingo Garagorrik alargundua izan behar zuela. Hori esateko ez zuen Manuela Larramendiren hil agiria aurkitu inon. Ez zen horregatik batere ahula, hori ezean eman zigan beste arrazoia: hots, Domingo Garagorri berriz ezkondua agertzen zela beste emakume batekin, Catalina de Echagoyenekin, eta 1703tik 1720ra bitartean zazpi seme-alaba izan zituztela. Hortaz hila izan behar zuen lehen emazteak.

Horra non erakusten diguten orain Hernaniko liburuek, ordea, Manuela Larramendi hila uste genuen garai horretaz geroz bizi zela oraindik eta amabitxi izan zela ondoko urteetako zenbait haurren bataioan, esate baterako aita Kardaberatzen anaia Diego Manuelenean. Areago, Manuela de Larramendi —lehenago bera ala besteren bat?— 1708ko abenduaren bederatzian Franzisko Antonio Beroizekin —horra berriz ere Beroiz!— ezkondu zela. Bizi zen hortaz Manuela de Larramendi eta dirudienetz baten ordeztu bi, laster ikusiko dugun bezala.

Gure aita Larramendiren amaz beste Manuelaren bat izango zen hori, pentsatuko du batek baino gehiagok. Bai, noski, izan zitekeen besteren bat. Baina beste batek bere aldetik galdegingo dio: Eta ez al zitekeen gure aita Larramendiren aitaz beste Domingoren bat izan Catalina de Echagoyenekin ezkondu hura? Ez da dudarik izan zitekeela. Eta orduan, bietarik nor hil zen, aita ala ama? Eta nor alargundu eta berriz ezkondu, ama ala aita? Eta noren umezurtz gertatu zen hamar edo hamaika urte zituela gure Manuel, amaren ala aitaren? Ala ez bataren eta ez bestearen, baldin gure Manuelen gurasoekin zer ikusirik ez bazuten batak ez besteak? Bai ote?

Zalantza horretatik ateratzeko hona bi gogoeta. Bat. Domingo Garagorri eta Catalina Echagoyen direlako horien berri hemengo liburuetan ikasi zuen Tellecheak, ez Hernanikoetan. Hemen bizi izan ziren, hemen izan zituzten zazpi seme-alaba, lehen esan bezala, eta ez da inongo

arrazoirik pentsatzeko ez zirela ehortziak ere hemen izan. Aldiz gure aita Larramendiren gurasoak badakigu, *Advertencia* delako hura idatzi zuen erretore jaunari eskerrak, Hernanin izan zirela ehortziak: “y están enterados en esta Parroquia“. Beraz Domingo de Garagorri hori itxura guzieren arabera gure Manuelen aitaz beste bat da. Bigarren arrazoa: esan dugu Tellecheak ez zuela aurkitu hemengo liburuetan Manuela Larramendiren hil agiririk. Orain bada, guk bai aurkitu ahal izan dugu Hernanikoetan Domingo Garagorrirena, aita Manuelen aitarena: “A tres de Septiembre de mil y setecientos murió Domingo de Garagorri y testó ante Antonio de Ayerdi”. Eta hiltzean, bere emaztea haurdun baitzegoen, horra zergatik ezarri zioten aitaren izena, Domingo Ignacio, zazpi hilabete geroago sortu zen mutikoari. Hauek horrela badira, Catalina de Echagoyenekin ezkonduko Domingo Garagorri hura beste bat da eta aldiz Hernanin hiltzen den hau gure Manuelen aita. Beraz aitaren umezurtz gelditu zen gure Manuel hamar urte bete baino lehen.

Manuela de Larramendiren hil agiria ere hantxe dago Hernaniko liburuetan, batena gabe birena gainera, baina urte batzuk geroago. “En tres de Noviembre del año de mil setecientos y veinte y dos murió Manuela de Larramendi y no testó”. Aita Larramendiren amarena izan behar horrek —eta hala izatekotan Palencian jakingo zuen amaren heriotzearen berri—, zeren 1756ko martxoaren 24ean irakurtzen dugun beste Manuela de Larramendi baten hilberriak gehiago dirudi Franzisko Antonio de Beroiz jaunaren emaztearena.

Horra gure aita Manuelen haurtzaroko ixtoria gazi-geza. Baldin, uste dugun bezala, 1700garren urtean hil bazitzaion aita, ez zen aurrera gozoa izan etxe hartako atarramentua, ez eta urdina gure Manuelen etorkizuna. Ama gaztea alargun, bost ume hankagorri inguruan zituela; zaharrenak hamairu urte, txikienak hamaika hilabete, eta hori aski ez bailitz, ama haurdun. Ataka larri hartan ez zion Manuela alargunari mesede txikia egin Miguel Miner jesuitak, bere iloba Manueltxo berekin Bilbora eramango zuela esan zionean, eta han haziko, heziko eta eskolatuko zuela: “Fue como su padre y a quien debió su educación y estudios y fortuna, como decía él mismo”.

Galdera bat baino gehiago datorkigu burura Manueltxo txikia Bilbora abiatzen ikustean, nahiz badakigun oraingoz erantzunik ez dutela: bai al zekien orduan etxeko kontuen berri eta gurasoen hamabi urte lehenagoko ezkontzaren eta bere arreba Maria Josefaren jaiotzaren berri? Martintxo eta biak Hernanin ez, gainerako senideak bezala, baizik hemen Andoainen, Garagorri baserrian, jaió eta hemengo parrokiaren bataiatu zirela?

Hauxe izan zen, andoaindarrok, nik ezagutzen dudan neurrian, Larramendiren bizitzako lehen aroa, haurtzaroa, hemen eta inguruan igaro

zuena. Oso laburra, hamar urte exkax. Ez zitzaion halere bere herriarekiko atxikitasuna sekula hoztu, ez eta ahaztu. Lehen ere aipatu dudan Agustin de Leizaren hiletetako sermoian honelako laudorioak egin zituen Andoaingo jendeaz: “guztia dirade biotz nobledunac, honraz, leialtadez, prestutasunez, christau onen fedez bete beteac. Bestelacoric idorotzen bada gure bazter oietan, eztira emengoac, bira diranac arrotzac dira, erbestecoac, alde oquerretacoac”.

Orain eta gero ere bira Andoaindik landakoak hemen diren eta diratekeen alproja guziak, inor bada, eta zuek zaretela Larramendik bere garaiko andoaindarrak zirela uste zuen bezalakoak.

LARRAMENDI UN GUIPUZCOANO TRASPLANTADO Y VUELTO A IMPLANTAR

Andoain, 23-XII-1990

J. Ignacio Tellechea Idigoras
Catedrático de la Universidad
Pontificia de Salamanca

En las fichas biográficas suele anotarse la vida de un hombre entre dos paréntesis, señalando la fecha de nacimiento y la de la muerte. Larramendi nació en el caserío Garagorri de Andoain el 24 de diciembre de 1690 —mañana se cumplirá el III Centenario de su nacimiento—, y murió en Loyola el 29 de enero de 1766. Tuvo, pues una vida relativamente larga, pues cumplió los 75 años. Todos tenemos, o tendremos, ese paréntesis cerrado un día. Mas, lo importante no es el hecho biológico de vivir y alentar, sino lo que cada uno ponemos dentro de esas dos fechas señaladas. También es verdad que el corto paréntesis de la vida de un hombre concreto se inscribe dentro de un paréntesis más amplio de la historia general, no ya de la Humanidad entera, que es demasiada y muy compleja historia, sino del ámbito más cercano en que se desenvuelve la vida del hombre, en el caso de Larramendi, en la historia de Guipúzcoa, de España y de Europa.

En mi corta intervención de esta mañana no voy a aburrirlos con datos y fechas que vayan jalonando la vida de Larramendi, ni siquiera con la enumeración de episodios de su vida, hoy ya conocidos gracias a la documentación que he ido publicando. Sí quisiera decir algo sobre la época en que le tocó vivir y considerar, a vista de pájaro, el curso de su vida.

* * *

Su vida se sitúa a caballo entre dos siglos, dos siglos bien diferenciados, el XVII y el XVIII. En el primero asistimos al final de una época, caracterizada sobre todo por el desgarrón religioso sufrido por Europa, y por el descubrimiento de América. El segundo es llamado, no en vano, el siglo de las Luces, y representa un modo nuevo de pensar y actuar,

simbolizado por la Enciclopedia, y con variantes muy interesantes en cada uno de los países europeos. Sería ingenuo canonizar el año 1700 como la línea divisoria entre dos épocas, ya que las evoluciones culturales nada tienen que ver con las evoluciones de nuestro planeta en torno al sol. Además, modernamente desde los estudios de Paul Hazard, empieza a admitirse que los primeros síntomas de renovación datan de las dos últimas décadas del siglo XVII, esto es de 1680 en adelante, a pesar de la grave crisis económica que afectó a Europa. Eso quiere decir que la vida de Larramendi transcurre bajo el signo de la nueva época, y que al final de su vida, de 1750 a 1762, coincide con las manifestaciones más claras de la nueva cultura.

En el ámbito en que él se mueve hay que situar un importante cambio de dinastía en España. Con la muerte de Carlos II se extingue la dinastía de los Habsburgos y comienza la de los Borbones venidos de Francia. Me inclino a pensar que en Larramendi había una cierta que-rencia hacia los primeros y acaso una cierta prevención contra el estilo más autoritario, centralista... y antiforalista, de los segundos. Pero por otra parte, desde sus días de Bayona, parece concebir una alta estimación por Luis XIV de Francia y el esplendor de la cultura francesa de la época, como lo muestra en la carta al P.Berthier, y una velada conciencia de la decadencia de España, si bien muestra en la citada carta esperanzas de un próximo resurgir cultural.

Del siglo XVII pasó al XVIII un conjunto de ideas y problemas con vigencia y con los que se encontró— y participó en la liza— el P.Larramendi: el galicanismo, el jansenismo, el cartesianismo con el atomismo y las primeras manifestaciones del ateísmo, todo ello con más fuerte implantación en Francia, mas con derivaciones hacia la cultura española. En el ámbito político, y también en Francia, o proveniente de Francia, parece imponerse un absolutismo más decidido, que en España toma un aire innovador con Felipe V tras su victoria en la guerra de sucesión. De hecho no pocas veces, y en teorías cada vez más dominantes en otras, se levantan aires de reforma centralizada, eliminación de obstáculos —abolición de los Fueros de Cataluña y Valencia con el pretexto de que habían sido favorables a la causa del pretendiente Habsburgo, tendencia a la uniformación, por otra parte necesaria en pesos y medidas, en la eliminación de fiscalidades diferentes, etc.. Es en ese ámbito donde se plantea la defensa apasionada de Larramendi de los Fueros de Guipúzcoa y de la identidad vasca, que le ocupó y preocupó los últimos años de su vida, incluyendo en ese capítulo su defensa del euskera y de su uso.

* * *

Si del gran paréntesis pasamos al más corto paréntesis de la vida concreta de Larramendi, podíamos dividirla *grosso modo* en dos partes,

separadas por su breve paso de pocos años por la corte de Mariana de Neoburgo en el castillo de Marrac, cerca de Bayona.

La primera parte, la del proceso acumulativo en la vida de un hombre, de los diez a los cuarenta años, se divide en dos épocas: la primera la de su infancia en Andoain, cuando recibió la primera instrucción en la escuela de Hernani, donde precisamente fue cuando los niños compañeros la comenzaron a apellidar Larramendi, con este apellido profesó en la Compañía, como lo demuestra esa firma con un rúbrica impresionante, digna de un notario, que descubrí hace muchos años en Villagarcía de Campos, y que conviene advertir que es la firma del Larramendi joven, adiestrado en caligrafía en la tradición guipuzcoana, pero que cambió bien pronto por una más simple y sencilla, cambio que me gustaría someter algún día a la pericia de los grafólogos.

Ya era un mocito cuando por influencia de un tío suyo, el jesuita Hermano Miner, pasó a Bilbao, donde pronto entraría en la Compañía de Jesús. Eso quiere decir que tuvo tiempo para asimilar todo eso que recibimos del medio ambiente en que va desplegándose la infancia y la adolescencia, esas impresiones que se graban con más fuerza en la tabla rasa de nuestra conciencia, que perduran a pesar de todos los elementos superpuestos y que reverdecen con fuerza en los días de la ancianidad. Aquellos recuerdos y las nuevas noticias, prestan esa riqueza y calor que notamos en la *Corografía* de Larramendi.

Una vez dado el paso del ingreso en la Compañía, la vida de Larramendi va a seguir las pautas impuestas por su propia elección, esto es, los años largos de estudios propios de la Compañía y en los lugares clásicos de los mismos: noviciado en Villagarcía de Campos, en aquel estupendo centro donde seguía vivo el recuerdo de sus fundadores D. Luis de Quijada y Dña. Magdalena de Ulloa, y del hijo que criaron sin ser suyo, nada menos que D. Juan de Austria, el de Lepanto, cuyo afecto por el lugar se muestra en los objetos preciosos que donará a la casa y que aún hoy pueden admirarse; Filosofía en Medina del Campo, la célebre ciudad comercial castellana, próspera en el siglo XVI y más decadente en el XVIII, donde sería su maestro el célebre P. Losada, el talento filosófico más importante dentro de la Orden y en España. Luego vendrían los largos años de Teología en Salamanca, en el magnífico Colegio de la Compañía, llamado del Espíritu Santo, y más tarde de San Carlos. Sabemos que Larramendi se distinguió sobremanera como estudiante de grandísimo talento, y bastaría para demostrarlo el hecho de que de su euskera nativo pasase al dominio estupendo de las lenguas castellana y latina.

Tras diez años de acumular saberes, comienza a repartirlos como Maestro, primero enseñando Filosofía en Palencia (1720-3), más tarde

Teología en Salamanca (1723-9) y pasando luego a San Ambrosio de Valladolid. Fue un Maestro que estimulaba a los alumnos, y un orador que causaba asombro en el púlpito. Hay que resaltar que en ese contexto publicó, precisamente en Salamanca en 1729, su *El Imposible vencido*. A sus 40 años era ya un hombre hecho y derecho, con sólida formación, con ardor para el trabajo, investido de un gran renombre. El reconocía que todo se lo debía a su tío el Hermano Miner, porque todo dependía del impulso de él recibido para entrar en la Compañía. En realidad todo lo debía a la Compañía, pero el ser jesuita lo debía a su tío.

Tras el período bayonés, concluido con un amargo desengaño, Larramendi escogió el retiro de Loyola y hasta se valió del apoyo de la Reina penitente para recabar del P. General la gracia de tal elección, contraria a los deseos de sus Superiores jesuitas que lo querían llevar de nuevo a la Universidad. Este cambio de la ciudad del Tormes a Loyola, del hervidero de estudiantes, maestros y bibliotecas a la tranquilidad loyolea “sin más libros que San Antonio en el desierto, como dirá él en una carta—supone el corte de su trayectoria natural y obvia y, en tal sentido, la frustración de su persona, llamada a ser una de las grandes e insignes del siglo XVIII. En compensación venturosa supuso la dedicación de Larramendi a esa ingente labor del *Diccionario Trilingüe* y el impulso dado al cultivo y uso del euskera, que le hace acreedor al título de impulsor del renacimiento vasco. Además, desde Loyola, pudo estar presente durante treinta años en la historia viva de Guipúzcoa, intervenir en los más variados asuntos, ser formador de monjas, pacificador de pleitos públicos o privados, cuasi director del consorcio de anclas de Hernani, intermediario de D. Agustín de Leiza para la construcción de esta maravillosa parroquia de Andoain, orador sagrado en las honras fúnebres del bienhechor con un sermón que veréis editado dentro de pocos días, y tantas cosas más, que ocuparon los años de este hombre, trabajador infatigable, hasta su muerte. El desplegó estas actividades, aparentemente ajenas, con la convicción de colaborar en defensa de la paz y la justicia. Hoy la llamaríamos un jesuita “comprometido”, aunque él padeció a veces la incomprensión de sus hermanos.

* * *

En su preciosa *Corografía* Larramendi insinúa que los defectos de los guipuzcoanos “se desvanecen cuando salen a otros países, y se hacen por todos lados genios estimables”. Es la teoría que yo llamaría trasplante, esa operación que se hace con plantas y árboles y que da excelentes resultados. Larramendi fue un trasplantado, que suavizó defectos, ensanchó el espíritu, vio otros mundos. “Mal conoce Inglaterra, quien sólo conoce Inglaterra”, dice un escritor inglés. La Guipúzcoa entrañada por Larramendi en su infancia fue sin duda redescubierta por él con más

profundidad cuando pudo verla contrastada con otras tierras. Entonces la vio más hondo y la amó más. Conoció otras lenguas, otros paisajes y costumbres, amplió sin tasa el horizonte de su cultura. Por eso valoró mejor a Guipúzcoa, su “nacioncita”, como él la llama, y se convirtió en el más entusiasta admirador de la misma.

Manuel de Larramendi (1690-1766), jesuita, un guipuzcoano trasplantado y vuelto a implantar, con grande fronda, extensas ramas, estu-
pendos frutos.

MANUEL LARRAMENDIREN III. MENDEURRENEAN

Andoain, 1990-XII-23

*Joseba Arregi
kultura kontseilaria*

Gipuzkoako Ahalduen Nagusi jauna,
Euskaltzainburua,
Andoaingo Alkate jauna eta bertoko Zinegotziak,
Mari Karmen Garmendia Hizkuntza Politikarako Idazkaria,
Euskaltzainak,
Andoaindarrak eta honeraturtako gainontzeko jendeak,
bihoakizue, lehendabiziko nere bitartez, Lehendakariaren agurra zuei
guztioi.

Azkenengo aste guzti hauetan, Aita Larramendi, hemen, Andoainen, jaio zeneko hirurehungarren urte-eguna ospatzen dugun momentu hone-tan, hainbat eta bainbat ekitaldi egin dira bere omenez, eta bere oroime-nari bizirik eusteko asmoz. Era guztietara, Aita Larramendi bera nor izan zen gogoan izanik, ez litzateke egoki izango, ekitaldi guzti hauen mamia oroimenean bakarrik geldituko balitz. Eta Aita Larramendi bera, bere genio biziarekin, haserre bizia berbiztuko litzateke, ikusiko balu, gaur egun, oroimenean bakarrik gelditzen garela eta ez garela gai etorkizunera ere begiratzeko. Hain zuen, berak tradizioetik jasotako Euskal Herria, Gipuzkoaren bitartez, maite eta defendatu izan bazuen, ez zen horretan gelditu; baizik eta, batez ere, Euskal Herrirako espero zuen eta nahi zuen aintzindari izaten saiatu zen eta hori izan zen erakutsi ziguna.

Hiru gauzatxo, beraz, azpimarratu nahi nituzke, oroimenean bakarrik ez gelditzeko. Lehenengoa, Aita Larramendi, batez ere, hemezortzigarren mendean bizi izandu zen, eta gu hogeigarren mendearen bukaeran bizi gara eta tartean, guztiok, hemeretzigarren mendea daukazu. Aita Larra-mendik, hemeretzigarren mende horretan gertatuko zenaren beldur izan zen ehun urte lehenago eta hemeretzigarren mendean, Euskal Herriak jasan zuen hondamendia, aurrez ikusi zuen bere begi zorrotzarekin. Gu, berriz, hemeretzigarren mende gertatutako hondamendi horren ondoren-

goak gara; hain zuzen, hondamendi horri, nolabait, buelta eman nahiez, eta ondorioak atereaz, berriro Euskal Herriari etorkizuna ireki nahiez. Historia berean loturik gaude, beraz, Aita Larramendi, orain dela hirurehun urte jaiotakoa, eta gaur egun, hogeigarren mendearen amaieran bizi garenok. Historia berak, XIX.mendean gertatutako hondamendiak lotzen gaitu. Berak aurre ikusi zuena eta bere ondorengoak jasan ditugunok, eta ondorengo horiei itzul berri bat eman nahi diegunok.

Bigarrenez, Aita Larramendik, argi eta garbi erakutsi zigun ez dagoe-la Euskal Herririk euskararik gabe, eta euskarak ez duela etorkizunik, Euskal Herriak bere buruaren jabetzari eusten ez baldin badio. Bata bestearekin loturik doaz eta betirako loturik jarraitu behar dute. Euskarak Euskal Herria behar du, bere buruaren jabe den Euskal Herri bat, bere tradizioak gordetzen dituen Euskal Herri bat, bere nortasuna zertan datzan dakien Euskal Herri bat; baina Euskal Herriak ez du bere arima gordeko, ez du bere izaera zainduko, euskera bazterrerazten baldin badu.

Hori behin eta berriz guztiok begibistan eduki beharreko zerbait dugu eta Aita Larramendik argi eta garbi ikusi zuen hori eta erakutsi ere bai.

Eta hirugarrenez, Aita Larramendi ez zen etxean gelditutako norbait, oraintxe bertan J. I. Telletxeak esan digun bezala. Ikasia zen, trasplanta-tua... Kanpotik ibilita gero ikasi zuen bere Herria maite izaten eta Herri honetako tradizioek zuten balioa ikasten. Kanpotik ikasia zelako. Ez zen, beraz, etxe barruan gelditutako norbait ikasitakoa. Baina horrek ez du esan nahi, ikasitako hori, koptatu besterik egin zuenik Aita Larramendik. Ez horixe. Kanpoan ikusi eta ikasitakoak bide eman zion Euskal Herriko izaera hobeto ezagutzeko eta maitatzeko.

JESUSEN LAGUNDIKO A. MANUEL LARRAMENDIREN

JAIOTZAKO III. MENDEURRENA (*)

Andoain, 1990-XII-23

*Jose M. Setien
Gipuzkoako apezpikua*

Aita Larramendiren Hirugarren Mendeurrena dela eta, Andoain, bere jaioterrian, eta hortik kanpo ere, hainbat jardunaldi eta ospakizun burutu dira 1990ko azken hiruhilabetetan. Guzti horri, bukaera abenduaren 23an eman zitzaion, goizeko 11tan elkarmeza nagusia izanez, Donostiako Gotzain jauna buru zela.

Hona hemen Meza horretan eginiko homilia:

Apaiz elkarmezemaile,

Agintari,

Andoaingo herri,

senide maiteok:

1. Andoaingo herri honetako Udalak eta, berarekin batera, Euskal Herriko hainbat erakundek ospakizun asko eta bereziak antolatu dituzte, Andoaingo seme Manuel Garagorri Larramendiren —A. Larramendi izenez ezagunagoa denaren— jaiotzako III. Mendeurrena ospatzeko. Parrokiari ere egokiera eman zaio Mendeurrenako omenaldi honetan parte hartzeko. Pozik onartu du parrokiak egokiera hau, eta nik neuk ere parte hartu nahi izan dut ospakizun honetan elizbarruti osoaren izenean.

Ez da batere harritzekoa, gisa honetako ospakizunetan Elizak parte hartu nahi izatea. Asko dira Andoainen beren buruak kristautzak dauzkatena; eta, jakina denez, horrelako egokieretan, kristauok Meza Santua ospatu ohi dugu: ontasunaren eta jakinduriaren iturri den Jainkoari egi-

(*) Donostiako Gotzaitzegiko *Aldizkari nagusia*, 1991, urtarrila, orrialdeak 70-73, delakotik jaso.

ten diogun esker onezko otoi-tza. Gaurko gure elkartzeko honek, lehenengo eta behin, esker onezko ekintza izan behar du, elizkizun hau desitxuratu nahi ez badugu behintzat: Jainkoari egindako esker onezko ekintza, kristauontzat; eta kristau herriaren erlijiozko sentipenen begirunezko aitomena, sentipen horiek agian sakontasunez bizi ez dituztenentzat.

2. Bada, oraindik, beste arrazoi bat, Eukaristia ospakizun honen esannahia ondo ulertzeko kontutan hartzekoa dena. A. Larramendi, nortasun aberatseko gizona izan zen era askotara. Jatorrizko argitasuna eta dohaiak ikasketa teorikoaz landu zituen. Sen berezia eta sakona izan zuen bere garaia ezagutu eta maitatzeko, era ekile eta sortzailean maitatu ere. Begirada zorrotza izan zuen konturatzeko, badela hemen bere hizkuntza, kultura eta nortasun juridiko eta politikoa dituen herri bat. Bere garaiko giroan eta ezaugarri bereziekin bada ere, Euskal Herriaren berezitasun eta norberatasun politiko eta kulturalaren alde jokatu zuen, benetan argi jokatu ere. Guzti hori agerian jartzen ahalagindu zarete, Mendurren honen inguruan antolatutako jardunaldiotan.

Guzti honek Elizarekin eta kristau bizitzarekin zerikusiriz ez duela irudi dakiok zerbaiti. Gauzak horrela ikusiz gero, ospatzen ari garen Eukaristia honek galdu egingo luke, bere esannahi eta balioaren, eta bere eduki erlijiosoaren alderdi haundi bat. Alderantziz, gogora ekarri behar dugu behin berriro, egiazko kristau bizitza ez daitekeela pertsonen eta herrien bizitzatik kanpora bizi, bakoitzaren eta gizartearen historiatik kanpora, alegia. Hau da, hain zuzen, "herriaren Eliza" esaten duguna ondo ulertu eta eraikitzeke egiazko ikuspegia. Herriaren Eliza, bere balio, aberastasun sozio-kultural, eta eskubide sozio-politikoekin; eta baita bere hutsune eta bekatuekin ere.

Bada hor zerbait erlijioarekin zerikusia duena eta ospakizun honetara ekarri nahi duguna; gizatasunarekin benetan lotua dagoena ez daiteke arrotz izan kristau fede eta bizitzarentzat, Jainkoaren asmoen barruan aurkitzen delako. Gure egunotako joera kultural eta politikoetan, Eliza eta Ebanjelioa nor bakoitzaren eta gizartearen bizitza osotik bereizi nahia sumatzen da; baina Elizak —Ebanjelioarekin eta bizitzarekin leial jokatzeagatik, hain zuzen— ez du inolaz ere onartuko horrelako bereizketarik.

Bere mezuaren muin-muinean Jainkoa giza izaerarekin bat egina jartzen duen fedea —Eguberriaren misterioan gogoratzen dugun bezala— ez dezake horrelakorik onartu. Gaur entzundako irakurgaietan, hain zuzen, Jesukristogan gertatu den jainkozko misterio honen agerpenaz hitzeging digu San Paulok: "Betidaniko gizaldietan ezkutuan egon den misterioa —esaten zitzagun—, baina orain... betiereko Jaungoikoaren erabakiz (Jesukristogan) adierazia, atzerri guztiak sinesmenera erakarriak izan daitezten".

Gure Elizak ez dezala Euskal Herrian behin ere galdu, benetan herrikoia egiten duen herriarekiko lotura hori.

3. Eta, azkenik, bada zerbait, A. Larramendi Elizarekin —eta, batez ere, Andaingo eliza honekin— era berezian lotzen duena. Andaingo elizan hartu zuen Bataioa; gero Jesusen Lagundiko apaiz izan zen; eta, orain gauden eliza eder hau eraikitzeko zebiltzanean, eragile bizkorra izan zen.

Ez kristau izatea, ez apaiz erlijioso izatea, ez ziren harentzat eragozpen izan bere herriarekin bat eginik bizitzeko, eta herri honen bizitza, amets eta asmoetan sarturik bizitzeko. Ez dakit zeintzuk izango ziren horretara eragin zioten arrazoi sakonak. Gauzak aurretik pentsatu ditugulako egiten ditugula uste izaten dugu, eta hala izan ohi da asmo zehatzei dagokienaz. Baina badira oinarrizko jarrera eta jokabideak gure arrazoiak baino lehenagokoak direnak, nahiz eta gero horien azalpena egiten saiatu. Zerikusi haundia dute honetan maitasunak eta sentiberatasunak. Kontua ez da arrazoiak eztabaidatzea, bihotzaren eraginez bizitzea baizik. Agian hori izan zitekeen A. Larramendiren ezkutuko arrazoiak. Bere baietza eman zion, bihotzean sortu zitzaion bizitza asmoari; eta Jainkoak ere badaki bihotzean hitzegiten, Andra Mariari hitzegin zion bezala, eta hark erantzun: “Gerta bekit, Zuk diozun bezala”; horrela, baietz apala eman zion bizitzari: azken batean, Jainkoagandik datorren eta gizakienganako eta gizartearenganako zerbitzu bihurtzen den bizitzari.

Apaiz, erlijioso nahiz sekular izan, gure Jaunak gai egin gaitzala guztiok, geure herriarengandik hurbil eta beronen historian sarturik dagoen Elizako fededun izateko: benetan “herrikoia” izan, eta herriaren barnetik guztiei Jainkoaren salbamen Ebanjelioa hotsegiteko gai izango den Eliza.

JESUSEN LAGUNDIKO AITA MANUEL LARRAMENDI JAIO ZENEKO HIRUGARREN MENDEURRENA OSPATZEN DUGU- LA ETA, LOIOLAKO ERRETOREAK KULTUR KONTSEILARI ETA AKADEMIKOEI EGITEN DIEN AGURRA

Loiolan, 1990.go abenduaren 14ean

*Iñazio Cacho Nazabal
Loiolako nagusia*

Kultur Kontseilari Jauna
Hizkuntz Politikarako Idazkari Andrea
Euskeraren Aholku Batzordeko
Euskaltzaidiko Akademiko argi eta adiskide bereziok.

1. Loiolako Inazio jaio zeneko bostgarren ehunurteko jaietan, har ezazue Loiola Etxearen ongiatorria.

Ongietorriak, baita, aurtengo Gabonetan ospatzen dugun Larramendiren jaioteguneko hirugarren mendeurren omenaldia dela eta, Loiolara etorri nahi izan duzelako.

Hemezortzigarren gizaldia, euskal-literaturaren erneberritzean, Luis Villasanteren eritziz, “erdiko, guztien ardatz” izan zen Manuel Larramendi, hemen, Loiolan, bizi izan zen.

– Larramendi, hogeitahamairu urtez, mila zazpiehun eta hogeitahamahirutik, mila zazpiehun eta hirurogeitaseigarren urte bitartean (1733-1766), hemen bizi izan zen. Urte aberatsak haiek, bai kultura, bai ebanjelizatze alorrean.

– Hemen, Loiolan bururatu zitzaion, eta hemen idatzi zuen harako lan harrigarri hura: *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latin* izenekoak, alegia. Baita Gipuzkoari buruzko beste lan zehatz hura ere: *Corografía de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Gipúzcoa* (mila zazpiehun eta berrogeitahemezortzian (1758).

– Hemen, Loiolan, aurrean jartzen zitzaizkion guztiekin, mokoka, polemikan aritu zen (Mariana, Mayans, Armesto eta abarrekin), horretarako paperak idatzi behar baziren idatziz, eta agiriak azalduz. Bere Probintzialak, Frantzisko Xabier Idiakezek zioenez, *Madrilgo Kortearen ere, paper hauetaz mintzo dira*. Horregatik, Larramendiren paper eta agiri guztiak bilduerazi, eta ixikik-gordean, Loiolatik, Valladolidera bidali zituen. Baina gaur, zorionez, badugu lan haietako batzuk behintzat irakurtzeko eta aztertzeko aukerarik. Ezagunak zaizkigu: *Discurso sobre*

la antigua famosa Cantabria (mila zazpiehun eta hogeitahamaseian idatzia, 1736), eta *Sobre los Fueros de Guipúzcoa* (mila zazpiehun eta berrogeitahamasetik hemezortzira idatzia (1756-1758).

– Hemen, Loiolan, jansenisten tankerako moral gogorra, bere ikasle Sebastian Mendiburu oiartzuarrak, eta honen antzeko predikalariek aldarrikatzen zuten moral estua... ironiaz, parregarri bihurtzen zuen Aita Manuelek.

– Eta azkenik, hemen, Loiolan mila zazpiehun eta hirurogeitaseigarrengo urtarilaren hogeitazortzian, hirurogeita hamasei urte zituela, hil zen Larramendi.

– Azken une haietan, bere alboan, han zuen Agustin Kardaberaz, hernaniar adiskide leiala.

2. Gaur, santutegiko gela eta ibilbideetan, Aita Larramendik, Loiola honetan, utzi zizkigun urrats eta oroigarriak aurkituko dituzue.

a) Bigarren etxebizitzan, sortaldera, Oñaz eta Azpeitira begira, hor duzue bere langela, nahiz eta oraindik erabat leheneratu gabe badago ere.

b) Hamabost eta hamaseigarren gizaldietako liburuen gela berezian, Larramendik idatzitako liburuak ez ezik, bere liburutegian zeuzkan beste batzuk ere ikusi ahal izango dituzue.

c) Hamalagarren (XIV.) gizaldiko Dorre-Etxean, oraindik orain lehengoratu izan den San Inazio-ren jaiotetxeko behebizitzan, arlosa batez estalirik, hor aurkitzen dira Aita Larramendi haundiaren gorpuzkondoak. Aldi haietan, behebizitza horretan izaten bait ziren ehortziak Loiolako Josulagunak.

3. Manuel Larramendiren urratsei jarraiki Loiolara etorri zaretenoi, begizue argi, bere kultura bideei jarrai diezaiozuen: zientzia aldetik, zehaztasun haundia goz, noski; baina, aldi berean, sortze edo kreative eraginean, ez hura baino kemen txikiagoz, gure hizkuntza eta gure kultura herri aurreratuenen goi-mailara jasoak izan daitezten.

Loiolak aspaldidanik duen kultur-ondorea, zuena duzue.

Zuen etxean zaudete.

Ongietorriak!